

EHME

ARGITALPEN-PROIEKTUA

Marijose Arregi Jaione Telleria Mikel Mate

© Marijose Arregi - Jaione Telleria - Mikel Mate
© EHME & EMMD, Donostia-San Sebastián 2010

ISBN: 978-84-938624-0-4
Lege-gordailua: SS-1703-2010



Lan hau Creative Commons (by-nc-sa) baimen baten menpe dago. Lan hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jendaurrean hedatzeko baimena duzu, baita lan eratorriak egiteko ere. Betiere, lanaren egilea aipatzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, hau bezalako baimen batekin bakarrik bana dezakezu. Baimen osoa: http://creativecommons.org, www.donostiaeskola.org eta www.ehme.eu
Obra honek wikipediako edukiak erabili ditu: http://es.wikipedia.org

Edukien aurkibidea

1 Sarrera....1

2 Eragileak: jabetza intelektualaren legea, egilea eta haren eskubideak, eta argitaratzailea....2

2.1 Jabetza intelektualaren legea Espainian. Aurrekariak....2

2.2 Egilea eta haren eskubideak....3

2.3 Argitaletxeak, funtzioa eta ardurak....4

2.4 Argitalpen-kontratua....5

3 Egile "ez-komertzialei" irteera bat eman beharra eta zergatik komeni den Creative Commons (by-nc-sa) baimena erabiltzea....6

4 EHME argitalpen-proiektuaren aurrekariak....8

4.1 EHME Elkartearen historia laburra eta helburuak....8

4.2 Elkartearen aldizkaria....8

4.3 Materialak sortzeko bekak....8

4.4 Durangoko Azoka....9

4.5 Bultzada berri bat, filosofia libretik....9

5 EHME argitalpen-proiektua, gure proiektu berritua eta berritzailea....10

5.1 Misioa, Ikuspegia eta Balioak (MIB) 10

5.2 EHME argitalpen-proiektuaren argitalpen-ildoak 10

5.3 EHME argitalpen-proiektua, bere izaera juridikoa definitzeko bidean....10

6 EHME argitalpen-proiektua, bikaintasunera bidean....12

6.1 EFQM ereduan oinarritutako kudeaketa-irizpideak....12

6.2 EHME argitalpen-proiektuaren ildo estrategikoak eta aginte-koadro integrala....14

6.3 EHME argitalpen-proiektuko prozesuen mapa....15

6.4 Argitaletxearen prozesuak....16

6.5 EHME argitalpen-proiektuaren ingurumen-politika....19

6.6 EHME argitalpen-proiektuaren erantzukizun soziala....20

6.7 Ez-komertzialaren mugak, ekonomia-jarduera, ekoizpen-kostuak eta banaketa....20

7 Etorkizunari begira: bikaintasunaren bila....22

Eranskinak....24

1 EHME eta MDE arteko lankidetza-hitzarmena....26

2 Egileei eskaintzen zaien argitalpen-kontratua....28

3 Creative Commons baimena (by-nc-sa)....32

1 Sarrera

EHMEren helburu nagusietako bat da ikasmaterial berrien sorkuntza sustatzea –metodoak, partiturak, material elkarreragilea edo beste edonolakoa–, beti ere musikarekin lotuta.

2005etik hona, Elkarteak bekak eskaintzen ditu ikasmaterialak sortzeko. Musika-tresna anitzeko eta ahotsezko 31 partitura argitaratu ditu, gure eskoletan dauden talde-mota ugarietara erraz moldatzen den errepertorio bat eskaintzeko.

Bestalde, era batean edo bestean, eskolek ere sortzen dituzte ikasmaterialak, sarritan ekimen partikularrengatik. Irakasteaz gain material horiek sortzeak ahalegin handia eskatzen duen arren, zabalkundeak ez du gainditzen tokian tokiko eremua. Horretaz gainera, gehienetan material horiek hasierako mailetarako izaten dira, adibidez Musika-hizkuntzaren Hastapena, Musika-tresnaren Hastapena eta abarretarako, eta ez dute jarraipenik ikasketa-maila guztietan, emaitzak aztertu ahal izateko.

Material horiek denak elkartuta, multzo handia sortzen da: sorkuntza berriak, ikasmaterial egokituak, programa elkarreragileak, denetariko tresna- eta ahots-moldaketetan oinarritutako partiturak… Denetik egoteaz gain, kopuru horrek Musika Eskolen profilari erantzuten dio: presentzia handia dute gizartean, gizarte-funtzio garrantzitsua dute eta, ondorioz, beren jarduera garatzeko material egokiak behar dituzte.

Egoera horren inguruko hausnarketa eta azterketa eginda, eta irakaskuntzaren arloan sorkuntza sustatu nahian, jaio berri da irabazi asmorik gabeko proiektu bat: jabari publikoko liburutegi online bat sortzea, Creative Commons dena (sormenaren muga legalak murrizteko erakundea). Materialak sortu, online zabaldu eta argitaratzeko proiektuari ekin dio EHMEk. Gure ustez memento ona da ikasmaterialen sorkuntzan jarduera-ildo berriak finkatzeko, zigilu bereizgarri batekin: jabari publikoak izatea eta irakaskuntzarako izatea.

Honako hau da abiapuntua: batzorde paritario bat sortu da, EHMEko bi kidez eta Donostiako Musika eta Dantza Eskolako bi kidez osatua. Nolanahi ere, argi utzi nahi dugu proiektu hau zabalik dagoela ideia, ekimen eta proposamenetara, bai eta proiektua hobetu dezakeen guztira ere.

Abiapuntu gisa informazio-liburuxka hau egin dugu, egile-eskubide eta argitalpenen mundu konplexuaz argitasunak emateko eta EHME argitalpen-proiektua ezagutarazteko.

2 Eragileak: jabetza intelektualaren legea, egilea eta haren eskubideak, eta argitaratzailea

2.1 Jabetza intelektualaren legea Espainian. Aurrekariak

Espainiako jabetza intelektualaren legea dator apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan (1996-04-22ko 97. BOE) eta haren oinarria da Bernako Ituna (Bernako Konbentzioa), literatura- eta arte-lanak babesteari buruzkoa.

Nazioarteko itun bat da, literatura- eta arte-lanen egileek dituzten eskubideak babesteari buruzkoa. Lehenbiziko testua 1886ko irailaren 9an sinatu zen Bernan (Suitza). Hainbat aldiz osatu eta berrikusi da, eta 1979ko irailaren 28an zuzendu da azkenekoz. 2009ko ekainean, Hitzarmeneko kide dira 164 estatu.

Liburu honen atal honetan ez dugu legearen azterketa sakonik egin nahi, horrek doktore-tesi bat eskatuko bailuke, eta hurbilpen bat besterik ez dugu eskainiko. Besteak beste, legeak zehaztapen hauek egiten ditu:

1. Jabetza intelektualaren barruan daude literatura-, arte- edo zientzia-sorkuntza original guztiak, edozein bitartekotan edo euskarritan eginak, ukigarria edo ukiezina, gaur egun ezaguna edo etorkizunean asmatuko dena; besteak beste:
   - Liburuak, liburuxkak, inprimakiak, gutun-liburuak, idazkiak, hitzaldiak, konferentziak, auzitegi-txostenak, katedra-azalpenak eta tankera horretako beste edozein lan.
   - Musika-konposizioak, letradunak edo gabeak.
   - Obra dramatikoak eta dramatiko-musikalak, koreografiak, pantomimak eta, oro har, antzerki-lanak.
   - Zinema-lanak eta ikus-entzunezko beste edozein lan.
   - Eskulturak eta margolanak, marrazkiak, grabatuak, litografiak eta istorio grafikoak, komikiak, entseguak edo zirriborroak eta gainerako lan plastikoak, aplikatuak edo ez.
   - Arkitektura- eta ingeniaritza-lanen proiektuak, planoak, maketak eta diseinuak.
   - Topografia, geografia eta, oro har, zientziari buruzko grafikoak, mapak eta diseinuak.
   - Argazki-lanak eta argazkilaritzaren ildotik eginak.
   - Ordenagailuko programak.
   - Lan baten izenburua, originala denean, haren barruan babestuta egongo da.
   - Lan originalaren gaineko egile-eskubideez gain, jabetza intelektualaren barruan daude lan eratorri hauek ere: itzulpenak eta moldaketak; berrikuspenak, eguneratzeak eta oharrak; bildumak, laburpenak eta pasarteak; musika-moldaketak; literatura-, arte- edo zientzia-lan baten edozein aldaketa.
2. Egiletzat hartzen da literatura-, arte- edo zientzia-lan bat sortu duen pertsona fisikoa.

3. Besterik frogatu ezean, egiletzat hartuko da lanean bere izena, sinadura edo ikurra daramana.
4. Norberaren lan batean zilegi da idatzizko, ahozko edo ikus-entzunezko beste lan batzuen pasarteak txertatzea, bai eta lan plastiko edo argazki-lan figuratiboak ere, baldin eta lehendik zabalduta dauden lanak badira eta aipu bat egiteko txertatzen badira, edo azterketa, iruzkin edo iritzi kritikoa emateko. Erabilera hori soilik egin ahal izango da irakaskuntzarako edo ikerketarako, arrazoiak emanda eta erabilitako lanaren egilearen iturria eta izena aipatuta.
5. Lan-harreman batetik sortutako lan bat ustiatzeko eskubideek kontratuan hitzartutakoari jarraituko diote. Kontratu horrek idatzita egon behar du. Idatzizko hitzarmenik ez balego, pentsatuko da ustiapen-eskubideak oso-osorik laga direla, lan-harreman horretatik egindako lana emateko unean enpresaburuaren ohiko jardunerako beharrezkoa den heinean.
6. Argitaratzaileari jendaurrean hedatzeko eskubideak ere ematen dizkion lan musikalen edo dramatiko-musikalen argitalpen-kontratuak balioa izango du, ale-kopurua zehaztu gabe ere. Nolanahi ere, argitaratzaileak ustiapenaren behar arruntei erantzuteko adina ale egin eta banatu behar ditu, musika-argitalpenaren ohiko erabilerari jarraituz.
7. Legez eratutako eskubideak kudeatzen dituzten erakundeek, beren edo inoren izenean, ustiapen- edo ondare-eskubideak kudea ditzakete, hainbat egilerentzat edo jabetza intelektualaren eskubideak dituzten beste jabeentzat. Horretarako, Kultura Ministerioaren baimena lortu eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

Legea aldatzea gomendatzen duten mugimendu asko daude. Adibidez, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 2010eko otsaileko jakinarazpen batean gomendatzen da “jabetza intelektuala babesteko arautegiaren erreforma integrala”, Ekonomia Iraunkorraren Lege Aurreproiektuaz gobernuari egindako nahitaezko irizpenean. Horretaz gainera, batez ere software libretik datorren joeraren ustez, "jabetza intelektuala" kontzeptua engainagarria da eta izen beraren barruan hainbat araubide juridiko biltzen ditu, elkarren parean ipini ezin direnak; hala nola, patenteak, egile-eskubidea, markak eta jatorri-izendapenak.

2.2 Egilea eta haren eskubideak

Egileari dagozkio bere lanaren ustiapen-eskubide oso-osoak, edozein eratan. Batez ere, kopiatu, banatu, jendaurrean hedatu eta eraldatzeko eskubideak: ezingo dira egin haren baimenik gabe, ez bada Legean aurreikusitako kasuetan.

Kopia-eskubidea: lan oso bat edo zati bat zuzenean edo zeharka finkatzea da, behin-behinean edo behin betirako, edozein bitarteko eta euskarri erabiliz, jendaurrean hedatzeko edo kopiak egiteko helburuarekin.

Banaketa-eskubidea: lanaren originala edo kopiak jendearen eskura jartzea da, ukitzeko moduan, salduta, alokatuta, mailegatuta edo beste edozein eratan.

Jendaurrean hedatzeko eskubidea: hainbat jendek obra eskuragarri edukitzea da, bakoitzari aleak banatu gabe; ez da jendaurreko hedapentzat hartzen etxera mugatzen denean, edozein eratako hedapen-saretan egon gabe.

Lanaren ustiapen-eskubideek egilea bizi den artean iraungo dute, eta hura hil edo heriotzaren berri eman denetik hirurogeita hamar urtean. Lanen ustiapen-eskubidea amaitzean jabari publikora igaroko dira. Jabari publikoko lanak edonork erabil ditzake, baldin eta lanaren egiletza eta osotasuna errespetatzen badira.

Lan bat argitaratzeko orduan, egileak argitaratzaileari eman behar dio lana, kopiatu ahal izateko forma egokian eta hitzartutako epearen barruan; eta argitaratzailearen aurrean bermatu behar du lanaren egiletza eta originaltasuna, jaso dituen eskubideez modu baketsuan baliatzea eta tiradako probak zuzentzea, besterik hitzartu ezean.

2.3 Argitaletxeak, funtzioa eta ardurak

Argitaratzailea pertsona fisikoa edo juridikoa da, bere kontura literaturako, zientziako edo edozein gaitako lanak aukeratu edo sortu eta edozein euskarritako liburu bihurtzeko industria-prozesuak egiten edo agintzen ditu, argitaratzeko eta hedatzeko.

Argitaratzailearen funtzioa da egile baten liburua zirkulazioan jartzea, eskubide horien ustiapenean parte izanda.

Liburu baten argitaletxearen ardurak dira hauek:

1. Egileak eta lanak bilatzea. Azkenean argitaletxeko zuzendariak egiten du, edo argitaratzeko lanak aukeratzen dituen pertsonak. Argitaletxeko zuzendariaren ardurak dira, halaber, egile-eskubideak negoziatzea, liburua argitaratzeko baldintzak negoziatzea eta baldintza horiek agertzen diren kontratu bat izenpetzea egilearekin.
2. Egilearen eskuizkribua lantzea. Egon daitezkeen akatsak zuzentzeko berrikusi eta esaldiak idazten eta aldatzen dira, testua hobetzeko. Argitaratzaileen eta testu-zuzentzaileen lana da.
3. Liburuaren diseinua. Azala, hitzaurrea, maketazioa. Itzulpenak, ilustrazioak eta abar egin ditzakete arte grafikoetako profesionalek.
4. Inprimatzea, gaur egun dituen aldaerekin. Tradizionala, offset, eskatu ahala inprimatzea. Soluzio tekniko bat edo beste aukeratuko da, ustez salduko den ale-kopuruaren arabera. Tirada txikietan offset eta eskatu ahala inprimatzea komeni dira, askoz modu hobekoak baitira.
5. Banaketa. Liburuak argitaratzetik kanpora dagoen faktore bat da, baina ezinbestekoa arrakastarako. Argitaletxe batzuek beren gain hartzen dute. Banatzaileen bidez helaraz daiteke argitaratzaileak prestatutako dokumentua.
6. Liburua azken kontsumitzaileari saltzea.

Legeak betebehar hauek ematen dizkio liburu baten argitaletxeari:

2. Lana hitzartu bezala kopiatzea –egilearen baimenik ez duen aldaketarik gabe–, eta ale bakoitzean egilearen izena, sinadura edo ikurra jartzea.
3. Tiradaren probak egileari erakustea, besterik hitzartu ezean.
4. Lana banatzea agindutako epean eta baldintzetan.
5. Lanari ustiapen jarraitua eta zabalkunde komertziala bermatzea, argitalpenen sektorean ohikoa den moduan.

6. Egileari agindutako ordaina ematea, eta hori proportzionala denean likidazioa ematea, gutxienez urtean behin. Horren kontu eman behar zaio egileari. Urtero, egileari ziurtagiri bat helarazi behar zaio, aleen argitalpen, banaketa eta izakinen datuekin. Ildo horretan, egileak eskatuz gero, argitaratzaileak frogagiriak aurkeztuko dizkio.
7. Egileari argitalpenaren originala itzultzea, inprimaketa eta tirada amaitzean.

2.4 Argitalpen-kontratua

Argitalpen-kontratuaren bidez, egileak edo haren eskubidedunek argitaratzaileari lagatzen diote, diru-ordain baten truke, lana kopiatzeko eta banatzeko eskubidea. Argitaratzaileak bere gain hartu beharko ditu lan horiek, hitzartutako baldintzetan eta Legeari jarraiki.

Argitalpen-kontratua idatziz egin behar da eta bertan agertu behar da:

1. Egileak argitaratzaileari egindako lagapena esklusiboa den.
2. Lurralde-eremua.
3. Argitalpenaren edo hitzartutako argitalpen bakoitzaren gehieneko eta gutxieneko ale-kopurua.
4. Aleak banatzeko modua, eta egilearentzat, kritikarako eta sustapenerako gordeko direnak.
5. Egilearen ordainketa, Legearen 46. artikulua betez.
6. Argitalpen bakarraren edo lehenaren aleak plazaratzeko epea ezingo da izan bi urte baino luzeagoa, egileak bere lana behar bezala ematen dionetik argitaratzaileari, kopiak egin ditzan.
7. Egileak noizko eman beharko dion bere lanaren originala argitaratzaileari.

3 Egile “ez-komertzialei” irteera bat eman beharra eta zergatik komeni den Creative Commons (by-nc-sa) baimena erabiltzea

Mundu komertzialean eskaintzaren eta eskariaren legeak agintzen du. Musikaren argitalpen-mundura hurbiltzeko aukera oso zaila da, ez badira arrakasta komertzialak. Gehienetan autoedizioa jarriko da mahai gainean, hau da, egileak argitalpen-kostuak ordaintzea eta bera izatea kopia guztien jabe.

Arrakasta komertzialen egileek nola edo halako arrakasta dute, baina, adibidez, euskal gaien moldaketak dituzten oboerako partitura batzuk argitaratzeko aukera oso txikia da: nekez aurkituko dugu horiek argitaratuko dituenik, batez ere ez bagara ezagunak eta ospetsuak. Hainbat eta hainbat pasadizo daude: 6000 € ordaindu behar izan dituzten egileak zerbait argitaratzeko, laguntza publikoak lortzeko borrokatu behar izan dutenak, hainbat argitaletxetara joan eta ezezkoa jaso dutenak, eta astunak izatearen poderioz nahi zutena lortu dutenak.

Horregatik, egile ezezagun asko “ez-komertzialak” dira, baina lanak zabaltzea eta banatzea oso garrantzitsua da ezagunak izateko eta arrakasta edukitzeko.

Creative Commons (by-nc-sa) baimena (kontratu esklusiborik gabea) da modurik onena, gure ustez, egileen lana ezagutarazteko. Zer bide zabaltzen ditu baimen horrek? Zer muga ditu? Etorkizunean zer aukera eskaintzen dizkio egileari?

Baimen horrek posible egiten du lanak banatzea, kopiatzea, jendaurrean hedatzea eta eraldatzea, egilearen eta hanre lanaren sustapena ahalik eta handiena eta mugarik gabea izan dadin. Jabari publikoa balitz bezala da, hau da, egileak bere eskubideak lagatzea, lana ezagutarazteko. Argitalpena esklusiboa ez denez, egileak eskubide batzuk gorde eta muga batzuk jar ditzake, bere lanaren gaineko kontrola bermatzeko.

Lehenbiziko muga da ezin dela banatu, kopiatu, jendaurrean hedatu edo eraldatu helburu komertzialekin. Egileak ditu helburu horietarako eskubide guztiak. Horrek egilearen zabalkundea mugatzen al du? Bai, ezingo baita erabili helburu komertzialekin; baina, eskatzen badiote, egileak baietz edo ezetz esan dezake, edo zein diren baldintzak (baita ekonomikoak ere).

Bigarren muga katearena da, eta creative commons-ak edo jakintza komuna zabaltzea bilatzen du. Baimen hori duen letra batekin kanta bat egiten badugu, gure kantak baimen bera eduki behar du, ezingo dugu copyright-a duen lan eratorririk egin, eta letraren egilea aitortu behar dugu. Zein da helburua? Erkidegoari uzten dioguna erkidegoak berdin erabiltzea, inor gure lanaz aprobetxa ez dadin legez kontra.

Musikariok poetak behar ditugu, bideo-sortzaileek gu behar gaituzte, eta dantzariek eta koreografoek denok behar gaituzte. Copyright-aren mundutik posible da elementu batzuk erabiltzea, baina lehenbizi baimenak behar ditugu: proiektu edo ekoizpen handi bat bada egin ahal izango da, baina irabazi asmorik gabeko ekoizpen bat bada ezinezkoa izango da, ziur asko.

Aukeratu dugun baimena, egilearentzako aukera ona izateaz gain, konprometitua dago kultura berri batekin, librea eta irekia, software libreko baimenetatik eta GNU/Linux proiektutik sortua. Programa informatikoek oinarrizko lau askatasun dituzte (“klausula birikoa” deitu izan zaio):

- Programa edozein helbururekin erabiltzeko askatasuna.
- Programak nola funtzionatzen duen aztertzeko eta aldatzeko askatasuna, norberaren beharretara moldatzeko.
- Programaren kopiak banatzeko askatasuna, besteei laguntzeko.
- Programa hobetzeko eta hobekuntza horiek besteei helarazteko askatasuna, komunitate osoaren onerako.

Kultura Libre horrek posible egin du sortzaileak bere lana hobeto kontrolatzea eta guk denok ondasun intelektual horiek eskurago edukitzea, estandar murrizgarririk gabe. Era horretan, jarduerak garatzeko eta ezagutzeko proiektuak ahalbidetu dituzte filosofia horren aldeko ekimenek.

2000n sortu zen ArtLibre izeneko baimena, urte hasieran Parisen egindako Copyleft Attitude topaketatik, lan bat erabili ahal izateko sarbide irekia emateko helburuarekin, egilearen eskubide moralak ukatu gabe.

2001ean jaio zen Creative Commons izeneko irabazi asmorik gabeko erakundea, arte- eta kultura-lanentzat baimen estandarizatu batzuk sortzeko asmoarekin.

2004an, Espainiako lege-esparruan Aire Incondicional baimena agertu zen, Shedhalle Arte Zentroan gauzatua. Hainbat edukiri aplikatu zaie, eta erabiltzaileek erraz ulertu eta aldatzeko modukoa da.

2005ean jaio zen ColorIURIS, Europako eredu juridikoan oinarrituta sortutako egile-eskubideak kudeatzeko eta lagatzeko nazioarteko sistema: eskubideak lagatzeko kontratuen bidez eskura jartzen ditu edukiak, beste sistemek ez bezala.

2007an jaio zen Kultura Lan Librearen Definizioa (Freedom Defined), FSF eta Creative Commons-en babesarekin. Urte horretan sortu zen Internet bidezko lan libreen lehenbiziko erregistroa ere, “erabilera publikoko gune” gisa ezagutua, ColorIURIS sistemaren eskutik. Helburua: jabari publikora igaro diren lanak barne hartzea.

EHME argitalpen-proiektuak beste bi helburu osagarri ditu: egile “ez-komertzialak” argitaratzea eta sustatzea, eta artea zabaltzea kultura librearen mugimendura, balio iraunkorrak erabiliz etorkizuneko ildo estrategiko moduan.

4 EHME argitalpen-proiektuaren aurrekariak

4.1 EHME Elkartearen historia laburra eta helburuak

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartea (EHME) 1994ko abenduan eratu zen, Euskal Herriko Musika Eskolen kezkak bateratzen dituen erakundea izateko asmoz.

Elkarteak gure Erkidegoko musika-hezkuntzaren motorra, aitzindaria eta dinamizatzailea izan nahi du, etorkizunerako eta etorkizundun musika-hezkuntza bat sendotzearren, epe ertain eta luzera. Horregatik, gure musika-hezkuntza erakargarria izatea bilatzen dugu, hau da, gizartearen eskaerari erantzutea eta kalitatezkoa izatea. Eraginkorra ere bada, badakigulako zer egiten dugun eta zergatik egiten dugun.

Euskadiko Musika Eskolen errealitatea ongi kontrastatu dute sektoreko profesionalek. Dena dela, oraindik ere baditugu erronka garrantzitsuak sektorea sendotzeko eta aurrera eramateko. Batetik, hezkuntza-administrazioak parte handiagoa izatea gure eskoletan. Bestetik, gure hezkuntza-eskaintza eta egitura sendotzea.

EHMEk denetariko jarduerak egiten ditu urtero, eta historian zehar egindakoen berri emango dugu. Elkarteak urteetan zehar antolatutako jarduera ugariak musika-eskoletako kide guztiengana iritsi dira: ikasleak, irakasleak, administrazioko langileak… Laburbilduz, egunetik egunera hobea izan nahi duen sektore baten zerbitzura egindako lana da, musikaren arloan gero eta jantziagoa den gizarteari zerbitzu handiagoa eta hobea emanez.

http://www.ehme.eu/

4.2 Elkartearen aldizkaria

EHMEren argitalpen-arloko lehen mugarria da Mungiako Musika Eskolako zuzendari Maria Elena Puyuelok 1999an hasitako aldizkaria.

EHME aldizkariaren *Zortziko* aldizkaria 1999an sortu zen jardueren berri emateko, ikastaro eta esperientziez informatzeko, iritzien foro bat eskaintzeko, etab. Hasieran urtean hiru aldizkari argitaratzeko asmoa zegoen, baina edukirik ezean eta bilatzeko denborarik ezean, urtean bi argitaratzera murriztu zen. 2005ean, zuzendarien bileretan gai hori jorratu ostean, edukia aldatu beharra ikusi zen eta, beharrik egonez gero profesionalen esku uztea; azkenean, argitaratzeari utzi zitzaion 2006an.

4.3 Materialak sortzeko bekak

2003-04 ikasturtetik 2007-08ra arte, ikasmaterialak sortzeko eta lortzeko ekimen berri bat proposatu zen. Horretarako, beka batzuk sortu ziren, EHMErekin lotutako egileen partiturak argitaratzeko. Beka horien bidez musika-tresna anitzeko 31 lan argitaratu eta doan banatu zitzaizkien EHMEko eskola guztiei.

4.4 Durangoko Azoka

Egindako argitalpenen ondorioz, EHMEk gune bat izan du Durangoko Liburu Azokan, eta berarekin lotutako eskolek ikusgai eta salgai jarri dute ikastetxeek argitaratutako materiala. Honako hauek dira parte-hartze horren helburuak:

1. Euskal kulturaren foro garrantzitsu horretan parte hartzea.
2. Elkartea ezagutaraztea.
3. Jarduera irekiak sustatzea: prestakuntza-plana, kongresua, jardunaldiak...
4. Elkarteko eskolek argitaratutako materiala ezagutaraztea eta salgai jartzea.
5. EHMEtik argitaratutako materiala ezagutaraztea eta salgai jartzea.

4.5 Bultzada berri bat, filosofia libretik

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin 2010ean sinatutako lankidetza-hitzarmenaren ondorioz, batzorde paritarioaren hainbat bilera egin eta erabaki zen bultzada berri bat ematea argitalpenei, 3. atalean adierazitakoan eta Creative Commons baimenetan oinarriturik.

Planteamendu berri hori EHMEko ikastetxe guztiei eman zitzaien jakitera, eta 2010eko martxoaren 12ko Batzar Orokorrean onartutako aurrekontuen babesa du. Bultzada berri horrek gardentasuna eskatzen du, eta nahi duten eskola guztiek parte hartzea. Dokumentu hau lan handi baten emaitza da, erreferentziazkoa izan dadin etorkizunean eta proiektu honetan sartu nahi duten eskola eta egile guztientzat.

5 EHME argitalpen-proiektua, gure proiektu berritua eta berritzailea

5.1 Misioa, Ikuspegia eta Balioak (MIB)

Erakunde bakoitzak bere MIB formulatu behar du, horren arabera zentzuz eta eraginkortasunez egituratu eta MIB etorkizunera bidean joan dadin. Argitalpen-prozesuko lider guztien artean egin da MIB hori, eta berrikusi egingo da 2010-12 plan estrategikoa amaitzean.

Misioa: Egileen lanak argitaratzea eta sustatzea, oro har arte-irakaskuntzari eta bereziki musika-irakaskuntzari zuzenduak.

Ikuspegia: Europako erreferentziako creative commons argitaletxea izatea musika-argitalpenen arloan.

Balioak:

1. Erantzukidetasuna egileekin eta boluntarioekin.
2. Altruismoz partekatzea eta lankidetzan aritzea.
3. Garapen profesionala eta hazkunde pertsonala.
4. Gizarteari zerbitzu egitea eta erantzukizun soziala.
5. Gardentasuna.
6. Berrikuntza eta sormena.
7. Aniztasuna eta desberdintasunak aintzat hartzea.

5.2 EHME argitalpen-proiektuaren argitalpen-ildoak

EHME argitalpen-proiektuaren MIB betetzeko, argitalpen-ildo hauek finkatu dira:

1. Azterketen eta Zuzendaritza Estrategikoaren ildoa, entseguak, azterketak eta liburuak egiteko –batez ere zuzendaritza-taldeei zuzenduak–, eta Musika Hezkuntzako Ikastetxeen kudeaketarekin lotutako funtzio teknikoetarako.
2. Partituren ildoa, musika-lanen partiturak sortzeko, irakasleek musika irakasteko aukera ugari izan ditzaten.
3. Ikus-entzunezkoen ildoa.
4. Metodoen eta dokumentazio pedagogikoaren ildoa.

5.3 EHME argitalpen-proiektua, bere izaera juridikoa definitzeko bidean

Modu paraleloan, arinean eta autonomoan kudeatu ahal izateko –baina EHMEren interesei loturik– Erakundeen Elkarte bat sor daiteke laster, eta haren misioa bat etorriko da dokumentu honetan deskribatutako EHMEren argitalpen-proiektuarekin.

EHMEren 2006ko memorian adierazten zen 2003-04 eta 2004-05 ikasturteetan jasotako bekekin lortutako materiala pixkanaka ari zela argitaratzen, kostuagatik eta horretarako dirulaguntza ezagatik. Egitura berri honek kalitatezko argitaletxea izan nahi du, Europan *creative commons* partiturak argitaratzen erreferentea; berari esker errazago kudeatuko dira argitalpenetarako laguntzak eta argitaratzeko akordioak egingo dira.

Kudeaketa eraginkorragoa izan dadin, baliteke etorkizunean elkarte berri bat sortzea — EHME eta Donostiako Udaleko Musika eta Dantza Eskolaren artean, baina beste erakundeetara ere zabalik—, ildo ireki eta garden horri eutsiz, eta Euskadiko musika-hezkuntzako argitalpenen liderra izateko helburuarekin.

6 EHME argitalpen-proiektua, bikaintasunera bidean

Zuzendaritza Batzordetik igaro diren pertsonei esker, EHMEk beti izan du EFQM kudeaketaren erreferentzia, eta Joxean Llorentek sustatu du MIB. EHME argitalpen-proiektuak argi adierazi nahi du bide horri jarraitzen diola, inspirazio-iturri izan daitekeelako eskolentzat.

EFQM autoebaluazio-eredu bat da –ikasketa, berrikuntza eta sormenari buruzkoa–; kudeaketa REDER matrizearen bidez aztertzen da, antolaketaren oinarrizko 9 irizpide daude eta 8 kontzeptu nagusi hauek:

1. Emaitza orekatuak lortzea.
2. Bezeroentzat balioa gehitzea.
3. Ikuspegi, inspirazio eta osotasunarekin gidatzea.
4. Prozesuen arabera kudeatzea.
5. Pertsonen bidez arrakastara heltzea.
6. Sormena eta berrikuntza sustatzea.
7. Aliantzak egitea.
8. Etorkizun iraunkor baten ardura hartzea.

REDER matrizeak sistematikoki aztertzen du Emaitzen (R) garrantzia eta erabilgarritasuna, zer iraunkortasun duten Ikuspegi (E) edo Planen bidez, ikuspegien Hedapenak (D), Ebaluazioa (E) eta Berrikusketa (R), hori dena EFQM ereduaren baitan

6.1 EFQM ereduan oinarritutako kudeaketa-irizpideak

Oinarrizko 9 irizpideak 32 azpi-irizpidetan banatzen dira; 5 irizpide eragile dituzte (“Lidergoa”, “Estrategia”, “Pertsonak”, “Aliantzak eta baliabideak”, eta “Prozesuak, Produktuak eta Zerbitzuak”) eta emaitzen 4 irizpide (“Pertsonak”, “Bezeroak”, “Gizartea” eta “Gakoak”). Hona hemen, laburturik, irizpide horiek nola planteatzen diren EHME argitalpen-proiektuan.

6.1.1 Lidergoa

Prozesuko arduradun guztiak dira EHME argitalpen-proiektuko liderrak. Arduradun horien jardun, etika, bultzada eta erabakien bidez, beren pertsona-taldeek –modu koordinatuan lan eginez eta helburu finkatu eta partekatu batekin– erakundea “bultzatzea” eta “eraldatzea” lortuko dute, EHME argitalpen-proiektuaren MIBi zentzua emateko.

6.1.2 Estrategia

Behar-beharrezkoa da EHME argitalpen-proiektu osoak bere egindako estrategia argi eta garden bat edukitzea, MIBi erantzuten diona, ingurunean txerta dadin, iraunkorra izan eta emaitzetan ikus dadin.

Estrategia hori ildo estrategikoetan eta urteko kudeaketa-planetan biltzen da, eta horixe ebaluatzen dute EHMEren Zuzendaritza Batzordeak onartu beharreko kudeaketa-memoriek.

6.1.3 Pertsonak

EHME argitalpen-proiektuaren oinarria dira pertsonak eta, beraz, prestatu, gaitu, babestu eta lehentasunezko arreta ematen zaie. EHME argitalpen-proiektuan 3 talde bereizten ditugu, zein bere funtzioekin eta prestakuntza- eta aitorpen-beharrekin. EHME argitalpen-proiektuko pertsonak talde bateko edo gehiagoko kide izan daitezke, aldi berean:

1. Egileak: argitaletxearen oinarria dira eta EHMEko egileen erregistroan daude.
2. Lankideak: prozesu-taldeetan aritzen dira, edo lan jakinetan (testu-zuzenketak, azalak, itzulpenak...).
3. Liderrak: hala diren arren pertsonak izaten jarraitzen dute, beren betebehar zehatzekin.

EHME argitalpen-proiektuko lankideek ez dute diru-ordainik jasotzen, lan egiten duten eskolek ordaintzen baitiete. EHME argitalpen-proiektua luzapen bat da, ahaleginak batzeko modu bat, musikaren sektore osorako balio duena.

Gainera, bereizketa bat egiten da "pertsona aktiboak" –azken urtean EHME argitalpen-proiektuan parte hartu dutenak– eta azken urtean parte hartu ez duten "historiako pertsonen" artean.

6.1.4 Aliantzak eta baliabideak

EHME argitalpen-proiektuaren aliantzak eta baliabideak dira bere arrakasta bermatuko dutenak. Elkarteak aliantza eta baliabide horiek erabiliko ditu, baina MIB independenteari esker bestelako aliantza eta baliabide iraunkorrak ere bilatuko ditu, eta horien artean funtsezkoak dira zerbitzu publikoko eskolak eta erakundeak.

6.1.5 Prozesuak, produktuak eta zerbitzuak

EHME argitalpen-proiektua prozesuen bidez kudeatzen da, eta prozesuen mapan agertzen dira prozesu horiek. Produktuak (liburuak, metodoak, CDak, DVDak...) argitaletxeko bezeroentzat dira, hau da eskolentzat, baina beste erakunde eta/edo partikularrek ere erabil ditzakete. Prestakuntza- eta aholkularitza-zerbitzuak, berriz, egileentzat dira.

6.1.6 Bezeroengan izandako emaitzak

Bezeroengan, pertsonengan eta gizartean izandako emaitzek eta funtsezko emaitzek garrantzitsuak izan behar dute, erabilgarriak, iraunkorrak eta etorkizunera bideratuak. Etekina konparatu behar da sektorearen barruko eta kanpoko beste erakunde batzuekin. Era horretan ahalbidetuko dira benchmarking-a, jardunbide egokiak eta etengabeko hobekuntza.

Emaitzek neurtu behar dute erakundean zer eragin duten erakundeari buruzko iritziek, eta kudeaketa-adierazleen bidez frogatutako etekinek.

Bezeroen artean –hau da, argitalpen bat agindu duten eskola eta erakundeen artean– dagoen gogobetetasuna neurtzeko inkesta bat beteko da, eta etekina neurtzeko, berriz, adierazleak erabiliko dira (ale-kopurua, kostuak, erreklamazioak, zorionak…).

6.1.7 Pertsonengan izandako emaitzak

Pertsonekin egindako estrategiek eta politikek bat etorri behar dute pertsonen adierazleen emaitzekin.

6.1.8 Gizartean izandako emaitzak

Ingurumen-neurriez eta MIBen jasotako egile berrien sustapenaz gain, kontuan hartuko dira gogobetetasuna eta gizarte-adierazleak.

6.1.9 Emaitza gakoak

EHME argitalpen-proiektuaren ildo estrategikoen emaitzak eta MIBen emaitzak dira.

6.2 EHME argitalpen-proiektuaren ildo estrategikoak eta aginte-koadro integrala


EHME argitalpen-proiektuak plan estrategiko bat dauka, bertako lider guztien artean idatzia eta partekatua, eta EHMEren Zuzendaritza Batzordeak onartua. Honako hauek dira jarduera-ildoak, zein bere aginte-koadro integraleko adierazleekin:

1. Eskolen eskaera eta beharretara moldatzea:
    - Jasotako materialaz eskolek duten gogobetetasuna (egokitasuna, argitalpenaren kalitatea, erabilgarritasuna…).
    - Euskarri bakoitzean bidalitako ale-kopurua.
2. Creative Commons egileen base bat sendotzea:
    - Egile aktiboen kopurua.
    - Erregistro historikoko egileen kopurua.
    - Elkartutako eskolen bateko kide diren egileen ehunekoa.
    - Egileek Creative Commons-ekin duten gogobetetasuna.
3. Argitalpenen kopuru esanguratsu bat osatzea ildo bakoitzerako (liburuak, metodoak, CDak, DVDak eta partiturak), Estatuan erreferentzia izateko:
    - Euskarri bakoitzean argitaratutako ale-kopurua.
    - Euskarri bakoitzeko ale-kopurua, kopuru osoaren aldean.
4. EFQM 2010 ereduan oinarritutako kudeaketa bultzatzea:
    - Euskaliten kanpo-konparaketa eta liderren autoebaluazioa.
    - Liderrek kudeaketa-sistemarekin duten gogobetetasuna.

5. Proiektua epe luzera (2016) bideragarria izateko, aliatuak eta pertsona funtsezkoak finkatzea:
    - Lankideen kopurua, guztira.
    - 2. prozesuko azpiprozesu bakoitzerako lankide-kopurua.
    - Prozesu-liderren kopurua.
6. Iraunkortasuna eta berrikuntza txertatzea EHME argitalpen-proiektuaren produktuetan:
    - Bezeroek iraunkortasunaz eta berrikuntzaz duten gogobetetasuna.
    - Iraunkortasunetik eta berrikuntzatik EHME argitalpen-proiektuaren prozesuetan planteatutako hobekuntzen kopurua.

6.3 EHME argitalpen-proiektuko prozesuen mapa

EHME argitalpen-proiektua kudeatzeko 8 prozesu ditugu, proiektua behar bezala joan dadin.



6.4 Argitaletxearen prozesuak

Prozesu bakoitza gainerakoekin koordinatuta egongo da; helburu partekatu bat lortzeko jarduera ordenatuen batura da. Prozesuak dinamikoak dira eta bertako langileen eta liderren eskuetan daude. Hona hemen prozesuen laburpen bat:

1. prozesua	*Plangintza, Estrategia, Urteko Kudeaketa eta EFQM*
Misioa	Prozesuen plangintza egitea, irizpideak finkatzea eta sistemari balioa gehitzea, hobekuntza- eta berrikuntza-neurriak bultzatuz.
Arduraduna	Mikel Mate.
Sarrerak	Prozesuen informazioa eta eskakizunak. EHMEren aukerak eta aliatuak.
Irteerak	Onartutako dokumentuak. Irizpideak eta gidalerroak. Autoebaluazio eta kudeaketa estrategikoa, urtekoa eta EFQM.
Jarduera nagusiak	Kudeaketa estrategikoa: aginte-koadro integrala. Urteko kudeaketa. Azterketa eta autoebaluazioa. Jarduerak bultzatzea. Iradokizunen eta desadostasunen kudeaketa. Auditoretzak. Barne-komunikazioaren kudeaketa.
Adierazle nagusiak	Aginte-koadro integralaren adierazleak. Desadostasunen kopurua prozesu bakoitzeko. Lankideen eta liderren gogobetetasuna.

2. prozesua	*Argitalpena: Onartzea, berrikustea, zuzentzea eta prozesu teknikoak*
Misioa	Dokumentuak berrikusi eta zuzentzeko proposamenak egitea eta gainerako prozesu teknikoetan laguntzea kalitatezko parametroekin, egileak eta azken bezeroak pozik egon daitezen argitalpenarekin.
Arduraduna	Marijose Arregi.
Sarrerak	Egile-lan autoeditatuak.
Irteerak	Ekoizteko baldintzak betetzen dituzten egile-lanak. Egilearen gogobetetasuna dokumentua hobetu zaiolako.
Jarduera nagusiak	0 zirriborroaren aurreazterketa eta onarpena. Espezialisten berrikuspena. Argitaratzeko baldintzak. Hitzaurreak, sarrerak eta itzulpenak. Azken zirriborroa editatzea, ekoiztera bidaltzeko.
Adierazle nagusiak	Zirriborroen kopurua, editatutako dokumentu bakoitzeko. Egileak prozesu horretaz egindako balorazioa.

	Edizioaren arduradunaz egileak egindako balorazioa. Edizioaren osagaietan egindako aldaketen kopurua (sarrera, testua, hitzaurrea…). 1. prozesuko baldintzetatik egindako desbideratzeak.

3. prozesua	*Aurkeztea, sustatzea eta zabaltzea*
Misioa	Berrikuntzak eta editatutako dokumentuak ezagutaraztea ustez interesa dutenei .
Arduraduna	Oihana Etxebeste.
Sarrerak	Azken dokumentuak.
Irteerak	Prentsaurrekoak. Aurkezpenak eta azokak. Interesatuei e-mailak bidaltzea. Hedabideen eskakizunei erantzutea eta web-a.
Jarduera nagusiak	Aurkezpenak eta prentsaurrekoak kudeatzea. E-mailak bidaltzea. Hedabideei eta profesionalei arreta ematea.
Adierazle nagusiak	Prentsan zenbat aldiz atera den eta zein prentsatan (tokikoa, nazionala, espezializatua…). Deskargen eta eskaeren kopurua. 1. prozesuko baldintzetatik egindako desbideratzeak.

4. prozesua	*Legeztatzea*
Misioa	Argitalpena legeztatzeko kudeaketak egitea (ISML, ISSM... eta lege-gordailua).
Arduraduna	Saioa Bergado.
Sarrerak	Onartutako dokumentua.
Irteerak	Legeztatutako dokumentua.
Jarduera nagusiak	Nazioarteko erregistro-zenbakiaren kudeaketa (ISML, ISSM...). Lege-gordailua. Eskakizunei arreta ematea.
Adierazle nagusiak	Kudeaketaren batez besteko denbora, euskarri bakoitzeko (partitura, CDa...). 1. prozesuko baldintzetatik egindako desbideratzeak.

5. prozesua	*Ekoizpena*
Misioa	Dokumentuen kopiak egitea eta formatuak, txantiloiak eta abar moldatzea, legeztatutako materiala banatu ahal izateko.
Arduraduna	Jaione Telleria.
Sarrerak	Legeztatutako materiala.
Irteerak	Aurkezteko eta banatzeko kopiak eta online dokumentuak.
Jarduera nagusiak	Liburuak ekoiztea. Partiturak ekoiztea. CDak ekoiztea.

	DVDak ekoiztea.
Adierazle nagusiak	Emate-epea zenbat egunetan gainditu den, euskarri bakoitzeko (partiturak, CDak...). Ekoizpen-bolumena, euskarri bakoitzeko. Enpresa laguntzaileen desadostasunak. 1. prozesuko baldintzetatik egindako desbideratzeak.

6. prozesua	***Aleen eta materialen banaketa***
Misioa	Aleak eta dokumentuak online ipintzea, eskatzailearen eskura.
Arduraduna	Saioa Bergado.
Sarrerak	Ekoizpen-kopiak. Onlinerako txantiloi amaitua.
Irteerak	Materialaren banaketa.
Jarduera nagusiak	Dokumentuak eskoletara bidaltzea. Dokumentua zerbitzarietan ipintzea. Sustapenak bidaltzea, 3. prozesuaren eskariz.
Adierazle nagusiak	Ekoizpenaren tirada fisikotik sobratutako aleen ehunekoa. 1. prozesuko baldintzetatik egindako desbideratzeak.

7. prozesua	***Pertsonei arreta ematea***
Misioa	Pertsonen premiei erantzutea, proiektuarekiko erantzuna ezin hobea izan dadin. Lider, egile eta laguntzaile berriak biltzea.
Arduraduna	Mikel Mate.
Sarrerak	Prozesuen eskakizunak. Pertsonen eskakizunak.
Irteerak	Proiektuarekin lotutako pertsonak.
Jarduera nagusiak	Pertsonak proiektura biltzea. Pertsonak prestatzea. Aitorpen-neurriak.
Adierazle nagusiak	Pertsonen gogobetetasuna (egileak, liderrak eta lankideak) inkestako osagaiekiko. Urtean argitaratutako egile berrien kopurua. Jakinarazpena duten egileen kopurua (jakinarazpenen feedback-a). Pertsona bakoitzak prestakuntzari eskainitako ordu-kopurua. 1. prozesuko baldintzetatik egindako desbideratzeak.

8. prozesua	***Kudeaketa ekonomikoa***
Misioa	Gehiago eta baldintza hobeetan argitaratzeko baliabideak ahalbidetzea.
Arduraduna	Oihana Etxebeste.
Sarrerak	Aldizkari ofizialak (laguntzen deialdiak).

	Hornitzaile hobeak eta merkeagoak bilatzea.
Irteerak	Proiektuak eta argitalpenak finantzatzeko dirua.
Jarduera nagusiak	Diru-laguntzak bilatzea. Diru-laguntzak kudeatzea. Bestelako kudeaketa ekonomikoak.
Adierazle nagusiak	Ekarpena. 1. prozesuko baldintzetatik egindako desbideratzeak.

6.5 EHME argitalpen-proiektuaren ingurumen-politika

EHME argitalpen-proiektuak konpromisoa hartu du bere eragina murrizteko eta gure ingurumenaren kalitatea hobetzeko, kontsumoa arrazionalizatuz, baliabide naturalak eraginkorrago erabiliz eta eredugarri izanez, gizarteko beste eragileek ere ingurumen-jarduera egokiak erabil ditzaten egunerokoan.

EHME, ikastetxeak eta administrazioa gizartera iristeko moduetako bat argitalpenak dira, eta horien helburua da: politika publikoei, ikerketei edo bestelako gai interesgarriei buruzko informazioa ematea xede-taldeei (bere langileak, sektore pribatua, herritarrak oro har...), bai eta korporazio-irudi bat sortzea ere jakinarazpen ofizialetan eta administrazioko izapideetan. Ingurumena babesteko konpromisoari eusteko, erakundearen egoitza guztietatik bidalitako mezuek koherenteak izan behar dute gure ingurumen-politikarekin.

Horregatik, eta argitalpenen kontratazioa deszentralizaturik dagoenez, irizpide hauek prestatu ditugu, arduradunek aintzat har ditzaten:

1. Beste ezer baino lehenago, argitalpenek iraunkortasuna bete behar dute.
    - Argitalpen bat berriz argitaratu edo online zabaldu erabakitzea. Argitaratzea erabakiz gero, helburuak formatu elektronikoan berdin edo hobeto betetzen diren ebaluatzea.
    - Argitaratu nahi dena zabaltzeko orduan aztertzea ea argitaratzea den modurik egokiena, edo ea badauden gure publikoarengana hobeto hurbiltzeko moduak.
2. Paperean argitaratzea erabakiz gero, honela izan behar du:
    - Paper birziklatua, batere klororik gabea eta “Aingeru Urdina” ekoetiketaren irizpideak betetzen dituena.
    - Formatu estandarra eta ahalik eta gramajerik txikiena, paper-kontsumoa murrizteko.
    - Orri-estaldura txikia (gramaje handirik behar ez izateko), gehienez 4 tinta, eta kolore fluoreszenterik edo metalizaturik ez.
    - Ahalik eta orrialde edo tarte zuri gutxien, irakurtzeko erraztasunari eutsiz.
3. Birziklatu gabeko papera aukeratuz gero, “Zisne nordikoa" edo "Europako Etiketa Ekologikoa" ekoetiketen irizpideak bete behar dira eta, ahal dela, batere klororik gabea izan behar du.

4. Kontratatutako edo eskaintzak eskatutako inprentek langileen osasuna eta ingurumenaren babesa bermatzeko makineria, produktuak eta prozedurak eduki behar dituzte, ingurumen-kudeaketarako sistema baten bidez (Ekoscan, EMAS, ISO 14.001 edo baliokidea).
5. Edozein kasutan, inprimatze-prozesuak zuzenean plantxara izan behar du (*computertoplate*).
6. Argitalpenaren tiradak bat etorri behar du ustezko behar errealekin, eskaintzekin itsutu gabe. Izan ere, horiek kopia bakoitza merkeago bai baina kostu osoa garestiagoa izan dezakete, bai eta baliabideak beharrik gabe xahutu ere, eta kopien hondarrak sortu hartzaileengana iritsi gabeko kopiekin.
7. Ingurumenean eraginik txikiena duen banaketan ere pentsatu behar da, bai bilgarriaren bolumenari bai garraioko CO_2 isurketei dagokionez. Horretarako, ahalegina egingo da ale bakoitzaren bilgarria minimizatzeko eta banaketa beste sistema batzuekin koordinatzeko: barne-posta (udaleko langileentzat bada), beste argitalpen batekin batera (udalekoa edo beste erakunde batekoa, egunkarien antzera) edo banaketa-guneen bidez (liburutegiak, gizarte-etxeak, etab.).
8. Azkenik, eta hurrengo argitalpenei begira, kopien jarraipena egingo da jakiteko ea zenbat ale ez diren iristen hartzaileengana eta alferrikako hondakin bihurtzen diren.

6.6 EHME argitalpen-proiektuaren erantzukizun soziala

EHME argitalpen-proiektuak erkidegoarekin eta bere lankideekin dituen erantzukizun etikoen oinarria da gizarteari produktu erabilgarriak eskaintzea, bidezko baldintzetan. Baldintza justu horiek ez dute oztopo izan behar aberastasuna sortzeko eta, horregatik, EHME argitalpen-proiektuak lagundu, babestu eta bizkortu egin behar du liburuen, diskoen, argitaletxeen, musika-banaketaren eta abarren sektorea, egileak bere eskubideak kudeatzen dituelarik eta sortutako aberastasuna berdintasunez banatuz.

Iraunkortasunaren ildotik, EHME argitalpen-proiektua proiektuaren jarraipena bermatzen saiatuko da, ahal bada etorkizunean ere hazten jarrai dezan, giza eskubideen errespetutik lan-baldintza duinak eskainiz (halakorik eskatuz gero), laneko segurtasunari eta osasunari eusteko eta lankideen garapen pertsonalari eta profesionalari eusteko.

EHME argitalpen-proiektuaren konpromisoak dira legeak, arauak eta ohiturak betetzea, hartutako kontratuak eta konpromisoak errespetatzea eta kultura ulertzeko modu berri bat sustatzea, non herritar guztiok lagun dezakegun gizartea hobea eta justuagoa izaten.

6.7 Ez-komertzialaren mugak, ekonomia-jarduera, ekoizpen-kostuak eta banaketa.

EHME argitalpen-proiektua argitaletxe bat da eta, beraz, ekonomia-jarduera bat dauka eta baliabideak behar ditu bere helburuak betetzeko. Gure misioa, lehen adierazi bezala, egileen lanak argitaratzea eta sustatzea da, oro har artea eta bereziki musika irakastera bideratuak. Horretarako, gure ustez egile "ez-komertzializagarrientzat" interesgarria den baimen bat aukeratu dugu (3. atalean azaldu bezala).

Horretaz gainera, balio horiekin koherenteak izateko, sortze-estatutuetan “irabazi asmorik gabeko elkarte” izatea erabaki dugu (7.2 puntuan esan bezala), eta egileak zera ulertu behar du:

- Online banatzea egokia da kostuak murrizteko, erabiltzaileari produktu bat doan eskaintzeko, eta mundu osora eta mugarik gabe banatzeko. Nolanahi ere, azoka, liburutegi eta abarretan formatu fisikoak banatzea oso interesgarria izan daiteke online banaketaz harago iristeko, eta aukera polita da egilea eta haren lana sustatzeko.
- Materiala formatu fisikoan banatzearen kostuak dira –online argitaratzearen kostuez gain–, materiala ekoiztea (inprimatzea, papera, azaleztatzea...), materiala banatzea eta materiala saltzea, halakorik balego, ekoizpen-kostuak berreskuratzeko.
- EHME argitalpen-produktuaren banaketa estandarra dohainik izango da azken erabiltzailearentzat, eta ekoizpen-kosturik balego bertako baliabideekin erantzungo zaio, eta/edo argitalpen-proiektua sustatzen duten erakunde, enpresa eta abarren laguntzekin.

Helburu ez-komertzialak sustatzeko partiturak saltzeak, adibidez, zalantzak sor litzake baimen ez-komertziala izatearen inguruan. Proiektuari ekin bezain laster, eztabaida sortu da liburu-saltzaileen gremioaren bidez banatzeaz eta ongintzarako saltzeaz (GKEak...). Horregatik, azken erabiltzailearentzako prezio bat dagoen bakoitzean, eranskin bat sinatuko da egilearekin, eta han baimenduko dira baldintzak, gure baimena malgua izan dadin eta egilearen eta gizartearen interesekin bat etor dadin.

7 Etorkizunari begira: bikaintasunaren bila

Argitalpenetarako filosofia berri baten aurrean gaude, eta ziur gaude mesedegarria izango dela musikaren sektorearentzat. Hasieran egileekin eta eskolekin egindako aliantzak zabaldu egin beharko dira kontserbatorioetara, bestelako elkarteetara eta, batik bat, argitaratzearekin, inprimatzearekin eta zabaltzearekin lotutako gremio eta enpresetara. Alegia, lanean segitu beharko dugula.

Zalantzarik gabe, kalitatea izango da egileak zabaltzeko eta ezagutarazteko oinarrietako bat. Ildo horretan, honako erronka hauek izango dira etorkizuneko gure inspirazio eta motibazioa:

- Ohiko argitaletxeekin lan egin beharra eta negozio-bide berriak asmatzea, aberastasuna banatu ahal izateko eragile guztien artean (egilea, moldatzailea, interpretatzailea, argitaratzailea, liburu-saltzailea...).
- Egilearen irudia duindu beharra, eta hura babestu beharra mezenasgotik, ekimen publiko eta pribatuetatik, haren lana eta ahalegina aitortze aldera.
- Gurasoak eta bestelako interes-taldeak kontzientziatzea, egilearen zabalpen-eskubideak eta -nahiak errespetatzearen garrantziaz. Copyright-a eta copyleft-a errespetatzea eta aitortzea, hau da, baimenik gabeko kopia gaitzestea.
- Etorkizunean gogoeta sakona egin beharko da Jabetza Intelektualaren Legeaz, egileak berak erabaki dezan nola eta zein baimenekin banatu bere lanak, inork bere eskubideak baimenik gabe erabil ez ditzan.

Eranskinak

1 EHME eta MDE arteko lankidetza-hitzarmena

Alde batetik Izusko Izaguirre Loroño jaunak, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko presidenteak (aurrerantzean EHME), helbidea Las Mercedes kalea, 13-4., 48930 Getxon duenka (IFK G-20527222)

Eta beste aldetik, Denis Itxaso González jaunka, Donostiako Udaleko Musika eta Dantza Eskolako presidenteordeak (aurrerantzean MDE), helbidea Hirutxulo 3, 20012 Donostian duenak (IFK Q-2000543-E),

HONAKO HAU AZALDU DUTE:

Bi erakundeek helburu berak dituzte eta, beraz, lankidetzan jarraitzea erabaki dute, elkarrekin jardunda helburu horiek bete ahal izateko.

EHMEren estatutuetako 3.8 artikuluan aipatzen da dokumentu-funtsak sortzeko helburua: elkarteko kideentzako liburuak, partiturak, aldizkari espezializatuak, testuak, legeak, entzunezkoak eta ikus-entzunezkoak eta, noizbait, musikaren museo bat.

Hori dela eta, EHME argitaratze-lanak ari da egiten 2002az geroztik, emaitza onekin; eta online zerbitzuak eman nahi ditu, bazkide guztiek materialak jaitsi ahal izan ditzaten erraz eta doan. Argitaratutako partiturak publikoki kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatu nahi dira. Moldatu eta musika-tresnaz aldatu ahal izatea, hau da, obrak eratorri ahal izatea egile originala aitortuz, eta helburu komertzialetarako ez erabiltzea –egileen interesei eusteko–, eta helburu komertzialak baleude, egileak bere eskubideen baldintzak negoziatu ahal izan ditzan. Argitalpena arduratsua izatea nahi da, jabetza intelektualaren legea errespetatzea, nahikoa bermerekin eta egilearentzat esklusibotasun-mugarik gabe etorkizunean.

Creative Commons baimenek –musika-hezkuntzaren premiak bideratzeko formula gisa– eta, zehazkiago esanda, "Aitortu - EzKomertziala - PartekatuBerdin (by-nc-sa)" baimenak –http://es.creativecommons.org/licencia/ orrian jasoa–, posible egiten dute Musika Eskolen eta egileen interesak behar bezala bateratzea eta uztartzea.

MDEk planteatu du **bere materialak eta lan-tresnak erabiltzea**, eta/edo eskolako langileek aukeratuak/birlanduak, Open Source / Creative commons filosofiaren ildotik; eta argitaratzeko prest ditu hainbat material.

MDEren balioen artean dago beste eskolekin/erakundeekin lan egitea, ahaleginak elkartzeko, eta EHME da aliatu estrategiko nagusietako bat.

MDEk badu behar adina "know-how", bai eta beharrezkoak diren baliabideak ere EHMEren argitalpen-proiektua bultzatzeko, eta interesa dauka berak ere materiala argitaratzen laguntzeko.

Beste Musika Eskola batzuek ere ekimen honekin bat egitea eta beren materialak argitaratzea bilatzen da, JABARI PUBLIKOKO eskoletan musika irakasteko behar adina material lortzeko, Creative Commons baimenak erabiliz, bazterketarik eta esklusibotasunik gabe.

Hasiera batean lau lan-ildo proposatzen dira eta MDE horretan ari da lanean, ildo horiek etorkizunean alda edo zabal daitezkeen arren: azterketen eta zuzendaritza estrategikoaren ildoa; metodoen eta pedagogia artistikoaren ildoa; partituren ildoa, eta ikus-entzunezkoen ildoa.

Hasiera batean, argitaratutako materialak modu honetan zabaltzea, jendaurrean hedatzea eta sustatzea pentsatu da: e-mailak bidaltzea Musika Eskoletara eta interesatuei; prentsaurrekoak egitea egileekin eta EHMErekin; EHMEko eta MDEko "inprimatze" zerbitzarietan ipintzea; eta Durango.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki hauek hartu dira, baina lankidetzei mugarik jarri gabe. Aitzitik, harreman sendoago baten hasiera izatea nahi da. Ildo horren barruan, aldeek proiektu berritzaileak ere txertatu nahi dituzte, hezkuntza-erakundeak eta erakunde profesionalak lotuz, betiere musika- eta arte-hezkuntzaren esparruan.

ERABAKI DUTE

1. Musikako, dantzako eta beste arteetako eskolentzat interesgarriak diren liburuak, partiturak eta ikasmateriala elkarrekin argitaratzea.
2. Argitalpen Batzorde Paritario bat sortzea, interes berak dituzten eskola gehiago ere biltzeko moduan, eta honako funtzio hauekin:
    1. Argitaratzeko proposatutako egile-lanak ebaluatzea.
    2. EHME eta MDErentzat lehentasuna duten lanen argitalpena bultzatzea.
    3. Materialen argitalpena eta baldintza partikularrak onartzea (argitalpen-kostuen banaketa, ale-kopurua, banaketa, sustapena eta argitaratzearen beste elementuak).
    4. Lehentasunezko argitalpen-ildoak, formatuak eta jarduera-protokoloak onartzea, argitalpena kalitatezkoa izan dadin, eta sektorearen interesekin bat datorrena.
    5. Hitzarmen honen emaitza ebaluatzea, hobekuntzak proposatzeko.
    6. Behar adina neurri hartzea, hitzarmen honen helburuak betetzeko.
    7. EHME / MDErekin argitaratzen duten egileentzat pizgarriak eta aitorpena adostea.
    8. Etorkizunean sor litezkeen gatazkak konpontzea.
3. Batzorde Paritarioaren erabaki guztiak aho batez hartuko dira.

4. Lankidetza-hitzarmen honen baitan, honako hauek dira EHMEren konpromisoak:
    1. Batzorde Paritarioan onartutako erabakiak eta jarduera-protokoloak betetzea.
    2. MDErekin lankidetza aktiboa izatea, maila teknikoan zein ekonomikoan.
    3. Creative commons baimenak erabiltzea materialak ekoizteko formula orokor gisa.
    4. ISBN, Lege Gordailua eta argitaratzeko beste baldintza legalak izapidetzea.
    5. Argitaratzeko baldintzen administrazio-izapideak egitea, Batzorde Paritarioaren protokoloei jarraituz.
    6. Argitaratutako liburuak sustatzen eta aurkezten parte hartzea, Batzorde Paritarioan erabakitako baldintzetan.
    7. Hitzarmen honetatik jaiotako proiektua finantzatzeko laguntzak eskatzea.
    8. Musikarekin, dantzarekin eta, oro har, artearekin lotutako materialak argitaratzen laguntzea edozein egileri eta erakunderi.
    9. Batzorde Paritarioan parte hartuko duten EHMEko kideak proposatzea.
5. Lankidetza-hitzarmen honen baitan, honako hauek dira MDEren konpromisoak:
    1. Batzorde Paritarioan onartutako erabakiak eta jarduera-protokoloak betetzea.
    2. MDErekin lankidetza aktiboa izatea, maila teknikoan zein ekonomikoan.
    3. Creative commons baimenak erabiltzea materialak ekoizteko formula orokor gisa.
    4. Argitaratzeko lanak ematea.
    5. Egileei beren lanak autoeditatzen laguntzea (tresnak ematea, berrikustea, proposamen kritikoak egitea…).
    6. Hitzaurreak, egilearen ohar biografikoak, itzulpenak eta abar idazten laguntzea, eskolak dituen aukeren barruan.
    7. Argitaratzeko baldintza guztiak teknikoki izapidetzea, Batzorde Paritarioaren protokoloei jarraituz.
    8. Kontratuak sinatzea egile, oinordeko, erakunde, enpresa eta abarrekin.
    9. Argitaratutako liburuak sustatzen eta aurkezten parte hartzea, Batzorde Paritarioan erabakitako baldintzetan.
    10. MDEren zerbitzarietan materiala ipintzea, eta EHMEri link bat ematea material horiek jaitsi ahal izateko.
    11. EHMEk eta EGILEAK erabakitako izapide teknikoak egitea.
    12. EHMErekin batera bilatzea argitaratu ahal izateko laguntzak.
    13. Aholkularitza juridikoa eskaintzea, kontratuak hitzartu ahal izateko egile, oinordeko, erakunde, enpresa eta abarrekin.
    14. Musikarekin, dantzarekin eta, oro har, artearekin lotutako materialak argitaratzen laguntzea edozein egileri eta erakunderi.
    15. Batzorde Paritarioan parte hartuko duten MDEko kideak proposatzea.
6. Hitzarmen hau indarrean egongo da 2016ko abenduaren 31ra arte, eta bi aldeen erabakiz luzatu ahal izango da.

2 Egileei eskaintzen zaien argitalpen-kontratua

ALDE BATETIK, ARGITARATZAILEAK

Izusko Izaguirre Loroño jauna, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko presidentea, aurrerantzean EHME, helbidea Las Mercedes kalea, 13-4., 48930 Getxon duena (IFK G-20527222),

Denis Itxaso González jauna, Donostiako Udaleko Musika eta Dantza Eskolako presidenteordea, aurrerantzean MDE, helbidea Hirutxulo 3, 20012 Donostian duena (IFK P7090001D),

EHME eta MDE batera doaz, sinatutako lankidetza-hitzarmenaren arabera eta **ARGITARATZAILE** gisa,

ETA BESTE ALDE BATETIK, EGILEAK

<Egilearen izena> jauna/andrea, bizilekua <Egilearen bizilekua> duena, adinez nagusia, NAN <Egilearen NAN> duena, bere izenean eta interesean,
EGILE gisa,

HONAKO HAU AZALDU DUTE:

1. EHMEk eta MDEk lankidetza-hitzarmen bat dute, musikako, dantzako eta beste arteetako eskolentzat interesgarriak diren liburuak, partiturak eta ikasmateriala elkarrekin argitaratzeko.

2. EHME eta MDE ARGITARATZAILE egin dira, eta ardurak partekatu eta banatu dituzte, 1. eranskineko lankidetza-hitzarmenean agertzen den bezala.

3. EHMEren/MDEren argitalpenak Creative Commons (by-nc-sa) baimenarekin banatu, kopiatu, jendaurrean hedatu eta libreki eraldatu ahal izango dira.

4. Hitzarmen horren arabera, jarduera-protokolo bat egin dute, autoedizioa nahiz liburuen argitalpena erraza, sendoa eta eraginkorra izan dadin, enpresa pribatuen laguntzarekin, liburu elektronikoan nahiz paperean, eskatu ahala argitaratzeko eta banatzeko, hau da, ale batetik aurrerako tiradatan (print-on-demand).

5. EGILEA interesatua dago bere lana EHMEk/MDEk argitara dezan; ezagutzen ditu baimena eta jarduera-protokoloak, eta kontratu honen baldintzak onartuz EHMEren/MDEren zerbitzuak kontratatzen ditu LANA argitaratzeko eta saltzeko, paperean eta formatu elektronikoan, EHME/MDE argitalpen-zigiluarekin, eta hura argitaratzeko eta publikoari saltzeko eskubidea lagatzen dio, kontratu honen baldintzetan eta EHMErentzat/MDErentzat irabazirik gabe.

6. Horregatik guztiagatik, EGILEAK, EHMEk eta MDEk dokumentu hau egiteko ahalmen osoa elkarri aitortu eta kontratu hau onartuz, LANA argitaratzean baldintza hauek ezarriko dituzte:

HITZARMENAK

LEHENENGOA.- Kontratu honen arabera, EGILEAK ARGITARATZAILEARI agindu eta hark onartu egiten du LANA argitaratzea, kontratu honetako baldintzei jarraituz, EHME/MDE zigiluarekin (aurrerantzean ARGITARATZAILEA).

BIGARRENA.- ARGITARATZAILEAK lan horiek egin behar ditu bere kontura, hitzartutako baldintzetan eta apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua betez, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bategina onartzen duena, lege-xedapenak arautuz, argituz eta harmonizatuz.

HIRUGARRENA.- ARGITARATZEKO LANA(k):

Kontratu honen bidez, EGILEAK ARGITARATZAILEARI lagatzen dio kopiatzeko eta banatzeko eskubidea, Creative Commons (by-nc-sa) baimenarekin:

- <ARGITARATZEKO LAN(AR)EN IZENBURUA>

LAUGARRENA.- JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK ETA EGILEAREN BERMEAK:

4.1) EGILEAK adierazten du LANA berak egindako originala dela, eta haren edukiek ez dituztela urratzen inoren eskubideak. LANEAN beste inoren sorkuntzak baleude (arte-lanak, argazkiak, irudiak, literatura-lanen pasarteak eta jabetza intelektualak babesten duen beste edozein), EGILEAK adierazten du legezko jabeen eskubideak dituela, jabari publikokoak direlako, Creative Commons baimena dutelako, edo sorkuntza horiek LANEAN sartzeko bestelako baimenak dituztelako. Halakoetan, EGILEAK ARGITARATZAILEARI adierazi behar dizkio LANAREN kopietan sartu beharreko inoren eskubideen aipamenak (edozein formatuko deskargak edo inprimatutako kopiak).

4.2) LANA lehenago argitaratu edo zabaldu ez bada, EGILEAK adierazi eta bermatzen du argitaratu gabe dagoela.

4.3) LANA lehendik argitaratu eta/edo zabaldu badu EGILEAK berak edo beste edonork, edozein lurraldetan, katalogoz kanpo egon edo ez, EGILEAK adierazten eta bermatzen du LANAREN autoedizioak eta ARGITARATZAILEARI online merkaturatzeko ematen dionak ez duela urratzen, ez urratuko, ez kaltetuko inoren eskubiderik eta, ildo horretan, ardura osoa hartzen du ARGITARATZAILEAK erreklamazioren bat jasoko balu adierazpen eta berme hau zuzenak ez direlako.

4.4) Nolanahi ere, EGILEAK adierazi eta bermatzen du ez duela eta ez duela izango betebeharrrik eta/edo kargarik LANAREN gainean, hura ustiatzeari kalte egin diezaioketenik kontratu honen arabera.

4.5) EGILEAK adierazten du LANAREN eta haren edukien gaineko jabetza intelektualaren eskubide guztien jabea edo baimenduna dela, eta haiek erabil ditzakeela autoediziorako.

4.6) Halaber, EGILEAK adierazi eta bermatzen du LANAREN edukiek ez dituztela urratzen oinarrizko eskubideak, ez inorenak, ez oinarrizko eskubideak, balioak eta printzipio etiko eta moralak. Horregatik, bere ardura da LANAREN eduki osoa, eta ARGITARATZAILEARI bermatzen dio ez diola eragingo inoren erreklamazioak, LANAREKIN eta haren edukiekin lotuak, eta adierazpen eta berme honen zuzentasunik ezarekin lotuak.

4.7) EGILEAK esklusibotasunik gabe lagatzen dizkio ARGITARATZAILEARI LANAREN egile-eskubideak, online biltegiratu eta kopiatu ahal izan dezan ARGITARATZAILEAREN edo beste enpresaren baten online plataforman, jendeak jaitsi edo inprimatzeko moduan, EGILEAK aukeratutako modu eta ezaugarrietan, LANA aukeratutako formatuetara eraldatzeko baimenarekin. Eskubide horiek lagatzen dira LANA EGILEAREN KONTUAN dagoen artean, eta Internet osorako.

BOSGARRENA.- ARGITALPEN-ESKUBIDEAK LAGATZEA:

Jendeak eskura eduki dezan, EGILEAK ARGITARATZAILEARI lagatzen dizkio, kontratu honek iraun artean, LANA kopiatzeko, eskatu ahala inprimatzeko eta/edo plataforma digital batean eskura jartzeko behar diren jabetza intelektualeko eskubideak, inolako mugarik gabe.

SEIGARRENA.- ARGITALPENARI APLIKATZEKO BAIMENA:

Argitalpena Creative Commons (by-nc-sa) baimenarekin banatuko da, libre kopiatzeko, banatzeko eta jendaurrean hedatzeko baimena ematen da, betiere egilea aipatzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, hau bezalako baimena eskuratuta baino ezingo da banatu. 2. eranskinean datoz baimenaren xehetasunak.

ZAZPIGARRENA.- ARGITARATZAILEAREN EGILE-ERREGISTROA:

Kontratu honen bidez, EGILEA ARGITARATZAILEAREN Creative Commons (by-nc-sa) egile-erregistroan sartzen da, argitaratzeko eta lehenengo hitzarmenean sartzeko lanen ale bat emango dio eta, kontratu honen baldintzak onartuz, ARGITARATZAILEAK eskainitako zerbitzuak kontratatuko ditu LANA argitaratzeko eta saltzeko paperean eta/edo formatu elektronikoan, EHME/MDE zigiluarekin; eta online argitaratzeko eta saltzeko baimena ematen dio, kontratu honen baldintzei jarraituz.

ZORTZIGARRENA.- EGILEARI ORDAINTZEA:

Helburu komertzialik gabeko argitalpena denez, hezkuntzarako eta EGILEAREN musika sustatzeko, eta erabiltzaileentzako baimena 4. hitzarmenean jaso bezalakoa denez, ez da onurarik aurreikusten eta kontratu honen diru-ordainketa 0 €-koa izango da. Ezohiko irabaziak baleude –baimendu gabeko eta argitalpen-baimenean aipatu gabeko ustiapen komertzial batengatik, edo lan eratorri bat ez delako banatu baimen berdin batekin–, jatorrizko lanaren jabetza intelektualeko eskubideek sortutako irabaziak EGILEARENTZAT izango dira, oso-osorik.

BEDERATZIGARRENA.- ARGITALPENAREN EZAUGARRIAK:

9.1) Formatuak: ARGITALPEN-PROZESUAN, EGILEAK aukeratu du LANA eskatu ahala inprimatzea eta/edo e-Book moduan, ARGITARATZAILEAREN zigiluarekin merkaturatzea eta bertako eta/edo besteren plataformak erabiliz.

EGILEAK ezingo ditu aldatu kontratu honetan aukeratutako parametroak. ARGITARATZAILEAREN zigiluarekin argitaratutako LANARI ISBN zenbaki bat eta Lege Gordailuko zenbaki bat emango zaizkio. Kontratu honetako parametroen arabera, jendeak LANA eskuratu ahal izango du eskatu ahala inprimatuz eta/edo e-Book moduan.

AIPAMENAK:

9.2) Argitaratutako LANAREN azalean eta/edo e-Bookaren aurkezpenean EGILEA aipatuko da, kontratu honetan adierazitako izenarekin, bai eta bertan aipatutako izenburua ere.

9.3) LANAREN kredituetan, eta teknikoki posible bada, honako hauek ere aipatuko dira:

- EGILEAREN eskubideak erreserbaturik daudela, era honetan: “© EGILEAREN izena & EHME & MDE, argitalpenaren lekua eta urtea”.
- Ohar hau: Obra hau Creative Commons (by-nc-sa) baimen baten menpe dago. Obra hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jendaurrean hedatzeko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, hau bezalako baimena eskuratuta baino ezingo da banatu. Baimen osoa: http://creativecommons.org/, www.donostiaeskola.org y www.ehme.eu.

HAMARGARRENA.- LANAREN TESTUA EMATEA, ARGITARATZEKO EPEA ETA ALEEN ETA/EDO KOPIEN ESKURAGARRITASUNA:

10.1) ARGITALPEN-PROZESUAREN hasieran EGILEAK ARGITARATZAILEARI e-mailez bidalitako LANAREN edukiak (testua eta hari erantsitako beste edozein material) behin betiko edukiak dira (hau da, osoak, EGILEAK zuzenduak eta, beraz, inprimatzeko prest) eta ARGITALPEN-PROZESUAN adierazitako formatuetan emango dira.

10.2) ARGITARATZAILEAK eta EGILEAK besterik hitzartu eta idatziz jaso ezean, ARGITARATZAILEAK ez du berrikusiko jasotako testua (14. hitzarmenean aurreikusi bezala ez bada), eta EGILEAK ezingo du gerora aldatu.

10.3) LANAREN eskuragarritasuna: ARGITALPEN-PROZESUA amaitzean LANA jendearen eskura egongo da, bertako online dendan edo ARGITARATZAILEAK kontratatutako plataformaren dendan, eta edonork jaitsi edo kopiatu ahal izango du nahi duen LANA.

10.4) EGILEAK noiznahi ken dezake LANA bere KONTUTIK. Kendu arren, ARGITARATZAILEAK eta zerbitzua emateko kontratatutako enpresak LANAREN kopia bat eduki dezakete beren sistemetan, online dendan erosteko eskaeraren bat jasoz gero ere, baldin eta eskaera egin bada EGILEAK LANA bere KONTUTIK eta, beraz, online dendatik kendu aurretik.

HAMAIKAGARRENA.- LANA JENDEAREN ESKU JARTZEA ETA BANATZEA:

11.1) LANA jendearen esku jartzea eta banatzea ARGITARATZAILEAREN edo hark kontratatutako online dendaren bidez egingo da, eta ez dute ardurarik izango EGILEAK zirkuitu horretatik kanpo banatzen badu LANA.

11.2) Argitaratzaileak lortuko du LANAREN ISBNa.

11.3) 11.1) puntuan aipatutako argitaratzeaz eta merkaturatzeaz gain, ARGITARATZAILEAK edonongo jendeari eskain diezaioke LANA.

11.4) Eskatu ahala argitaratuko dira aleak, inongo mugarik gabe eta kontratu honi jarraituz.

11.5) EGILEARENTZAT 6 ale gordeko dira, ARGITARATZAILEAREN kontura.

11.6) ARGITARATZAILEAK uste adina ale erabil ditzake LANAREN kritikarako eta sustapenerako, kontratu honetatik kanpoko mugarik gabe.

HAMABIGARRENA.- LANAREN KOSTUAK ETA PREZIOA:

12.1) LANA bidaltzea, kopiatzea eta ARGITARATZAILEAREN plataforman biltegiratzea dohainik izango da EGILEARENTZAT.

12.2) Deskargen eta eskatutako inprimatzeen prezioa: ARGITALPEN-PROZESUAN erabakiko da LANAK zer prezio izango duen modalitate bakoitzean, betiere kontuan hartuta gutxienez ale bakoitzaren ekoizpen-kostua estali behar dela, eta ARGITARATZAILEAK ezin duela irabazirik atera aleak saltzetik.

12.3) Kopiak eskuratzea: LANA e-Book formatuan jaitsi nahi duenak edo inprimatutako kopia bat nahi duenak, ARGITARATZAILEAREN edo hark kontratatutako enpresaren plataformako online dendan egin beharko du, EGILEAK erabakitako prezioak ordaindu eta, baleude, baita bidalketa-gastuak ere. LANAREN kopiak erosteko prozesuan jakinaraziko da haiek eskuratzearen kostua.

12.4) LANAREN eskaera guztiak (deskargak edo inprimatzeak) EGILEAREN KONTUAN jasoko dira, estatistikarako eta EGILEARI jakinarazteko.

HAMAHIRUGARRENA.- SUSTAPENA:

EGILEAK baimena ematen die ARGITARATZAILEARI eta argitalpena saltzeko eta/edo ekoizteko erabilitako enpresei bere izena eta LANAREN izenburua ipintzeko EHME y MDEren webgunean, bai eta ARGITARATZAILEAK egindako sustapen-material guztian ere, argitalpenaren modalitate guztiak sustatzeko helburu bakarrarekin.

Era berean, EGILEAK ARGITARATZAILEARI baimena ematen dio beste edonorekin LANA sustatzeko formulak hitzartzeko, publizitate eta ikusgarritasun handiagoa ematearren hedabide tradizionaletan nahiz Interneten (adibidez, inoren webguneetan LANA bilatzeko eta publizitatea egiteko sistemen bidez). Horretarako, ARGITARATZAILEAK besteri laga diezazkioke LANA ustiatzeko eskubideak, haren pasarteak jendeari ezagutzera eman eta era horretan sustapena eta publizitatea egiteko eta kopiak saltzeko.

HAMALAUGARRENA.- ARGITARATZAILEAREN BERRIKUSPENAK:

14.1) ARGITARATZAILEAK, bere ekimenez edo bestek eskatuta, noiznahi berrikus dezake LANA eta haren edukiak, inoren eskubideak eta balio eta printzipio etikoak eta moralak ez dituztela urratzen egiaztatzeko.

14.2) ARGITARATZAILEAK ikusiko balu LANAK eta haren edukiek urratu egiten dituztela inoren eskubideak eta balio eta printzipio etikoak eta moralak, LANA online plataformatik ken dezake.

14.3) Halakoetan, EGILEAK ezingo dio kalte-ordainik eskatu ARGITARATZAILEARI.

14.4) ARGITARATZAILEAK beste erakunde, enpresa eta abarrekin kontratatu edo hitzar ditzake argitalpena egiteko lanak, betiere kontratu honen barruan.

HAMABOSGARRENA.- DATUAK BABESTEA:

EGILEAK bermatzen du bere KONTUA irekitzean emandako datu pertsonalak benetakoak direla. Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, ARGITARATZAILEAK EGILEARI jakinaraziko dio haren datuak fitxategi batean sartuko direla, kontratatutako zerbitzua emateko eta jakinarazpen komertzialak bidaltzeko, baita baliabide elektronikoak erabiliz ere, EGILEAREN eta/edo harekin lotutako enpresen jarduerei eta zerbitzuei buruzkoak.

EGILEAK noiznahi ezezta dezake, atzeraeraginik gabe, baliabide elektronikoen bidez jakinarazpen komertzialak jasotzeko baimena; horretaz gainera, legeari jarraituz, emandako datu pertsonalak eskuratu, zuzendu, indargabetu eta haiek erabiltzearen aurka egin dezake, eskabide bat idatziz eta sinatuta bidalita, "Datu Pertsonalen Babesa" erreferentziarekin, kontratu honen goiburuan agertzen den EGILEAREN helbidera. Eskabide horretan datu hauek joan behar dute: Pertsonaren izen-deiturak, NAN edo pasaportearen fotokopia, eta baliatutako eskubidearen eduki zehatza.

HAMASEIGARRENA.- HELBIDEA ETA JAKINARAZPENAK:

Aldeen helbideak dira, ARGITARATZAILEARENA goiburuan ageri dena, eta EGILEARENA bere KONTUAN ageri dena. EGILEAK ARGITARATZAILEARI jakinaraziko dizkio bere KONTUAN egindako datu-aldaketak. Aldeen arteko jakinarazpenak ARGITARATZAILEAREN online plataformaren bidez egingo dira, hain zuzen ere EGILEAREN KONTUTIK.

HAMAZAZPIGARRENA.- KONTRATUAREN KOPIA, IRAUPENA ETA EBAZPENA:

17.1) Kontratuaren hiru kopia sinatuko dira, bat EGILEARENTZAT eta beste biak ARGITARATZAILEARENTZAT, eta haiek eskuratu eta kopiatu ahal izatea bermatuko du ARGITARATZAILEAK.

17.2) Kontratu hau indarrean sartuko da EGILEAK onartutakoan, eta indarrean egongo da LANA ARGITARATZAILEAREN eta/edo hark lana argitaratzeko kontratatutako enpresen online plataforman dagoen artean. Hala eta guztiz ere, EGILEAK noiznahi eten dezake kontratu hau bere aldetik, horregatik kalte-ordainik jaso gabe, eta gutxienez 90 egun lehenagotik jakinaraziko dio ARGITARATZAILEARI.

17.3) Dagozkion kalte-ordainez aparte, EGILEAK kontratua eten dezake ARGITARATZAILEAK edo hark erabilitako enpresak ez badu LANA argitaratzen haren erruz eta, EGILEAK ohartarazi ondoren, ez badu argitaratzen jakinarazi eta 90 eguneko epean.

17.4) Dagozkion kalte-ordainez aparte, ARGITARATZAILEAK kontratua eten dezake EGILEAK ez badu betetzen kontratu honetan ARGITARATZAILEAREN alde emandako bermeetako bat.

17.5) Legearen arrazoi orokorrez aparte, aldeetako batek kontratu hau eten dezake beste aldeak ez baditu hitzartutako betebeharrak bete, eta horren berri idatziz jakinarazi, 90 eguneko epean.

HEMEZORTZIGARRENA.- LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA:

18.1) Kontratu honek aurreikusten ez duen guztiari dagokionez, aldeek Espainiako lege aplikagarria beteko dute, hain zuzen ere Kode Zibileko eta Jabetza Intelektualaren Legeko Testu Bateginaren xedapenak, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan onartuak.

18.2) Kontratu honen ondorio guztietarako, aldeek Euskadiko epaitegien eta auzitegien jurisdikzioa beteko dute, balizko eskumenei uko eginda.

Hau irakurtzen amaitzean onarpena emanda, EGILEAK onartu egiten ditu kontratu honen baldintzak.

Donostian, <kontratuaren data>

3 Creative Commons baimena (by-nc-sa)

CREATIVE COMMONS CORPORATION EZ DA LEGELARI-BULEGO BAT ETA EZ DU LEGE-ZERBITZURIK ESKAINTZEN. BAIMEN HAU BANATZEAK EZ DU LEGELARI/BEZERO HARREMANIK SORTZEN. CREATIVE COMMONS-EK INFORMAZIO HAU DAGOEN-DAGOENEAN ESKAINTZEN DU (ON AN "AS-IS" BASIS). CREATIVE COMMONS-EK EZ DU BERMERIK ESKAINTZEN EMANDAKO INFORMAZIOAZ, ETA EZ DU ERANTZUKIZUNIK HARTZEN HURA ERABILITA SOR DAITEZKEEN KALTEEN GAINEAN.

Baimena

LANA EDO PRESTAZIOA (AURRERAGO DAUDE DEFINIZIOAK) CREATIVE COMMONS-EN BAIMEN PUBLIKO *(CCPL* EDO *BAIMENA*) HONEN BALDINTZAPEAN ESKAINTZEN DA. LANA EDO PRESTAZIOA ESPAINIAKO JABETZA INTELEKTUALAREN LEGEAREN ETA GAINERAKO ARAU APLIKAGARRIEN BABESEAN DAUDE. DEBEKATURIK DAGO LAN EDO PRESTAZIO HAU ERABILTZEA BAIMEN HONETAN ONETSITAKOAZ EDOTA JABETZA INTELEKTUALAREN LEGEETAN XEDATUTAKOAZ KANPOKO BESTE EZERTARAKO.

LANAREN EDO PRESTAZIORAREN GAINEKO EDOZEIN ESKUBIDE ERABILIZ GERO, BAIMEN HONEN MUGAK ETA BETEBEHARRAK ONARTZEN ETA BAIESTEN DITUZU, BAZTERREAN UTZI GABE BERARIAZKO BAIMENTZEA, BAIMENA ALDEZ AURRETIK URRATUZ GERO. BAIMENDUNAK BAIMEN HONEN MENDE DIREN ESKUBIDEAK LAGATZEN DIZKIZU, ZUK BALDINTZA ETA BETEBEHAR HAUEK ONARTZEN BADITUZU.

1. Definizioak

a. *Lana* da baimen honen baldintzapean eskaintzen den literatura-, arte- edo zientzia-sorkuntza.

b. Baimen honetan *prestaziotzat* jotzen da edozein interpretazio, joaldi, fonograma, ikus-entzunezko grabazio, emanaldi, transmisio, argazki edota jabetza intelektualaren legeak babestutako beste edozein objektu.

c. Baimen hau *bilduma* bati (aurrerago dago definizioa) aplikatzen zaionean, edukien antolaera edo hautapen adierazteko eraren egiturari eragingo dio, baina ez die edukiei eragingo. Halakoetan, bilduma hartuko da lantzat, baimen honen ondorioetarako.

d. *Jatorrizko jabea* da:

   i. Literatura-, arte- edo zientzia-sorkuntzaren kasuan, lana sortu zuen gizabanakoa edo pertsona multzoa.

   ii. Lan kolektiboen kasuan, bere izenpean editatu eta hedatzen duen pertsona, besterik ituntzen ez bada.

   iii. Interpretazio edo joaldi baten kasuan, antzezlaria, musikaria edo obra bat edozein eratan antzeztu, abestu, irakurri, interpretatu edo jotzen duen pertsona.

   iv. Fonograma baten kasuan, ekoizle fonografikoa, hau da, lan baten edo era guztietako hotsen joaldi baten finkatze soilik soinuduna lehen aldiz egiteko ekimena eta erantzukizuna hartu duen pertsona fisikoa edo juridikoa.

   v. Ikus-entzunezko grabazioen kasuan, grabazioaren ekoizlea, hau da, plano bat edo irudi-sekuentzia bat, soinuz edo soinurik gabe, finkatzeko ekimena eta erantzukizuna hartu duen pertsona fisikoa edo juridikoa.

   vi. Emanaldi edo transmisioen kasuan, irrati-emailea.

   vii. Argazki hutsen kasuan, egilea den pertsona.

   viii. Jabetza intelektualaren legeak babestutako beste edozein objekturen kasuan, legeak xedatzen duen pertsona.

e. *Lan eratorritzat* joko dira lan baimendunetik abiatuta sortutakoak, besteak beste: itzulpenak eta egokitzapenak; berrikuspenak, eguneratzeak eta oharrak; bildumak, laburpenak eta pasarteak; musika-moldaketak eta, orobat, literatura-, arte- edo zientzia-lan baten eraldaketa oro. Zalantzarik egon ez dadin, lana baldin bada musika-konposizioa eta soinu-grabaketa, lan eratorritzat joko da lan hori mugimenduzko irudiekin denboraz sinkronizatzea, baimen honen ondorioetarako.

f. *Bildumatzat* hartuko dira besteren lanen bildumak, datuzkoak edo bestelako elementu lokabezkoak, hala nola antologiak edota datu-baseak, edukien hautapenagatik edo antolaeragatik sorkuntza intelektualak baldin badira. Lan bat bilduma baten barruan sartze hutsak ez du lan eratorririk sortuko baimen honen ondorioetarako.

g. *Baimenduna* da, lana edo prestazioa baimen honen baldintzapean eskaintzen duen pertsona edo erakundea, eta ustiapen-eskubideak lagatzen dituena hemen xedatutakoaren arabera.

h. *Zu* zara baimen honen bitartez lagatako eskubideak erabiltzen dituen pertsona edo erakundea eta aurrez lanari edo prestazioari buruz baimenaren baldintzak urratu ez dituena, edota baimendunaren berariazko onespena jaso duena baimen honen bitartez lagatako eskubideak erabiltzeko, nahiz aurretik urraketa egina izan.

i. Lana *eraldatzea* da itzultzea, egokitzea edota forma beste edonola aldatzea eta hortik lan berri bat sortzea. Lan baten eraldaketatik gauzatutako sorkuntza lan eratorritzat joko da.

j. *Erreprodukziotzat* hartuko da lana edo prestazioa hedatzeko edo kopiak egiteko aukera ematen duen euskarri batean zuzenean nahiz zeharka finkatzea, behin-behinekoz edo betirako, edozein bitarteko edo formatan delarik ere.

k. *Banaketatzat* hartzen da jendearen eskura jartzea lanaren edo prestazioaren jatorrizkoa nahiz kopiak, euskarri ukigai batean, salmentan, alokatuz, maileguan edo beste edozein modutara.

l. *Jendaurreko hedapena* da lana edo prestazioa jendaurrean erakustea –hedapena egiten duen pertsonaren etxekoen aurrean ez bada–, pertsona bakoitzari lanaren edo prestazioaren ale bana aurrez eman behar izan gabe. Jendaurreko hedapentzat joko da lana edo prestazioa jendearen eskura ipintzea bitarteko haridun nahiz hari gabekoen bidez, eta horren barnean izango da lana jendearen esku jartzea, jendeak nahi duen lekutik eta nahi duenean eskuratzeko moduan.

m. Lana edo prestazioa *ustiatzea* da erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean hedatzea eta eraldatzea.

n. *Baimenaren osagaiak* dira baimenaren ezaugarri nagusiak, baimendunak egindako hautapenaren araberakoak eta baimen honen izenburuan ageri direnak. Aitortu, EzKomertziala, PartekatuBerdin.

o. *Baimen baliokidea* da:

i. Creative Commons-en baimen honen geroagoko bertsio bat, baimenaren osagai berberak dituena.

ii. Creative Commons-ek onartutako edozein eskumenek emandako baimenaren bertsio bera edo geroagokoa, baimenaren osagai berberak dituena (adibidez: Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0 Japonia).

iii. Baimen honen bertsio bera edo geroagokoa, Creative Commons baimena eskumen jakin batera egokitu gabekoa (*Unported*), baimenaren osagai berberak dituena.

2. Eskubideen mugak. Baimen honetan ez dira ezertan mugatu edo gutxitu nahi jabetza intelektualaren eskubideak, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera edota aplikagarri den beste edozein legeren arabera; berdin dio muga horiek erabilera zilegien ondorio izan –adibidez kopia pribatuaren eskubidea edo aipamen eskubidea–, edo bestelako mugen ondorio izan, hala nola lehen salmentako aleak agortzea.

3. Baimen ematea. Baimen honetan adierazten diren betebehar eta baldintzen arabera, baimendunak mundu osorako baimen ez-esklusiboa ematen du, jabetza intelektualaren eskubideen indarraldi osorako eta trukean ordainsaririk gabe, eskubide hauen lagapena eginez:

a. Lana edo prestazioa erreproduzitu, banatu eta jendaurrean hedatzeko eskubidea.

b. Lana edo prestazioa bilduma batean nahiz gehiagotan txertatzeko eskubidea.

c. Baimen batean legez txertatutako lana edo prestazioa erreproduzitu, banatu eta jendaurrean hedatzeko eskubidea.

d. Lana eraldatzeko eskubidea lan eratorri bat sortzeko, betiere lan eratorrian azaltzen bada egindako eraldaketa edo aldaketaren berri.

e. Baimendutako lanetik abiatuta sortutako lan eratorriak erreproduzitu, banatu eta jendaurrean hedatzeko eskubidea.

f. Lana edo prestazioa datu-base batetik erauzi eta berrerabiltzeko eskubidea.

Adierazitako eskubide horiek bitarteko eta formatu guztietan erabil daitezke, ukigarriak nahiz ukiezinak, baimen hau ematerakoan ezagun direnen arabera. Aipatutako eskubide horien barruan dago behar diren aldaketa teknikoak egiteko eskubidea, beste bitarteko eta formatuetan erabili ahal izateko eskubideok. Baimendunak berariaz lagatzen ez dituen eskubide guztiak erreserbatu egiten dira, 4.f atalekoak barne direla, azalpen gisara baina ez hartara mugatuta, bai eta legeetan aitortutako eskubide moral lagaezinak ere. Datu-baseen gaineko *sui generis* eskubideei buruzko Europako zuzentaraua gauzatzen duen lege nazionalaren arabera, eskubide esklusiboak badagozkio baimendunari, uko egiten die eskubide horiei.

4. Murrizketak. Baimen honek ematen duen eskubide-lagapenak murrizketa hauek ditu:

a. Baimen honen baldintzen pean soilik erreproduzitu, banatu edo jendaurrean heda dezakezu lana edo prestazioa, eta baimenaren kopia edota URIa (Baliabidearen Identifikadore Uniformea) erantsi behar diozu. Ezin duzu lanaren edo prestazioaren gainean baldintzarik eskaini edo ezarri, baimen honetako baldintzak edota lagapen-hartzaileen eskubideak ezertan aldatu edo murrizten baditu. Ezin duzu lana edo prestazioa birbaimendu. Oso-osorik gorde behar dituzu baimen honi buruzko eta bermerik ezari buruzko ohar guztiak. Ezin duzu lana edo prestazioa erreproduzitu, banatu edo jendaurrean hedatu lanaren eskuratzea edo erabilera baimen honetako baldintzen aurka kontrolatzen duten bitarteko teknologikoez. Bilduma batean txertatutako lanari edo prestazioari ere eragiten dio 4.a atal honek, baina horrek ez du esan nahi bilduma osorik baimen honen mende gelditzen denik edo gelditu behar duenik, besterik gabe. Eskatzen bazaizu, baimendunak hala adierazita, lana edo prestazioa bilduma batean txertatzen baduzu edota lan eratorri bat sortzen baduzu, kendu beharko dituzu 4.d paragrafoan eskatzen diren kredituak, ahal duzun neurrian.

b. Lan eratorri bat banatu edo jendaurrean heda dezakezu, baimen honen ildoan, soil-soilik baimen honen edota bere baliokideren baten pean. Baimen hau bera erabiltzen baduzu, kopia bat edo bere URIa sartu behar duzu, banatzen edo jendaurrean hedatzen duzun lan eratorri bakoitzarekin batera. Ezin duzu lan eratorriaren gainean baldintzarik eskaini edo ezarri, baimen honetako baldintzak edota lagapen-hartzaileen eskubideak ezertan aldatu edo murrizten baditu. Oso-osorik gorde behar dituzu baimen honi buruzko eta bermerik ezari buruzko ohar guztiak, lan eratorria banatu edo jendaurrean hedatzen duzunean. Ezin duzu lan eratorrien edo eraldatuen gainean baldintzarik eskaini edo ezarri, baimen honetako baldintzak edota lagapen-hartzaileen eskubideak ezertan aldatu edo murrizten baditu. Ezin duzu lan eratorria erreproduzitu, banatu edo jendaurrean hedatu, lanaren eskuratzea edo erabilera baimen honetako baldintzen aurka kontrolatzen duten bitarteko teknologikoez. Baimen baliokide bat erabiltzen baduzu, haren baldintzak bete behar dituzu lan eratorria banatu edo jendaurrean hedatzen duzunean. Baldintza horiek guztiak lan eratorri bati aplikatzen zaizkio bilduma baten parte den heinean, baina horrek ez du esan nahi bilduma baimen honen mende gelditu behar denik.

c. Aurreko 3. atalean lagatako eskubideak ezin dituzu inolaz ere erabili xede edo joera nagusia baldin bada irabazi komertziala edo diru-ordainketa lortzea. Lanaren trukean jabetza intelektualaz babestutako beste lan batzuk eskuratzea, fitxategiak partekatzeko sistemen bitartez, ez da irabazi komertziala edo diru-ordainketa lortzea xede edo joera nagusia duen jardueratzat hartuko, baldin eta babestutako lan horien trukean ez badago inolako diru-ordainketarik.

d. Zuk lana, prestazioa, hura doan bilduma bat edo edozein lan eratorri erreproduzitu, banatu edo jendaurrean hedatzen baduzu, lanaren jabetza intelektualari buruzko ohar guztiak oso-osorik gorde beharko dituzu eta aitortu beharko dituzu:

i. Jatorrizko egilearen izena edo goitizena, baita jatorrizko jabearena ere, horren berri ematen badizute.

ii. Jatorrizko jabeak edo baimendunak lege-oharrean, erabilera baldintzetan edota beste arrazoizko atalen batean jaso beharrekotzat izendatzen dituzten aldeen izenak (adibidez: erakundea, argitalpena, aldizkaria).

iii. Lanaren edo prestazioaren izenburua, horren berri ematen badizute.

iv. Baimendunak zehaztutakoaren arabera, lanari edo prestazioari estekatzeko URIa, non eta URI horrek ez duen zer ikusirik lege-oharrarekin edo lanaren edo prestazioaren baimenari buruzko argibideekin.

v. Lan eratorrien kasuan, lanak izandako eraldaketa zehazten duen oharra (adibidez, «Jatorrizko egilearen lana euskaratuta» edo «Jatorrizko egilearen lanean oinarritutako gidoia»).

Aitorpen hori zentzuzko eran egin behar da. Lan eratorrietan edo bilduma batean txertaturik doazenean, aitorpena agertu behar da, gutxienik, beste egile edo jabeen aipamenak ageri diren leku berean eta era berdintsuan. Zalantzarik ez izateko, atal honetan eskatzen diren kredituak erabili behar dira, soil-solik, lanaren edo prestazioaren aitorpena egiteko, arestian zehaztutako eran. Aldez aurretik idatzizko baimena izan ezik, zuk ezin duzu baieztatu edo era inplizitu nahiz esplizituan aditzera eman jatorrizko jabearekiko, baimendunarekiko edota aitortutako aldeekiko inolako lotura, babes edo onarpenik duzunik, ez zuk, ez lanaz edo prestazioaz egiten duzun erabilerak.

e. Zalantzarik ez izateko, nabarmendu behar da aurreko murrizketak (4.a, 4.b, 4.c eta 4.d atalak) ez zaizkiela aplikatzen datu-baseen gaineko *sui generis* eskubideei buruzko Europako zuzentaraua gauzatzen duen lege nazionalaren indarrez bakarrik babes daitezkeen lanaren edo prestazioaren zatiei.

f. Zalantzarik egon ez dadin, jatorrizko jabeak:

   i. Eskubidea du lana edo prestazioa ustiatzeko ekintzen truke dagozkion ordainsariak edo kalte-ordainak jasotzeko, legeak lagaezintzat eta besterenezintzat jotzen dituen guztietan, eta nahitaezko kudeaketa kolektiboaren mende daudenetan.

   ii. 4.c atalaren arabera, lanaz edo prestazioaz egiten dituzun baimen honetatik kanpo dauden ustiapen-ekintzen truke ordainsaria jasotzeko eskubide esklusiboa, nahiz bakarka, nahiz eskubideen kudeatze kolektiboko entitateen bitartez.

5. Erantzukizunei uko egitea

BAIMENDUNAK LANA EDO PRESTAZIOA DAGOEN-DAGOENEAN ESKAINTZEN DU (ON AN "AS-IS" BASIS), ALDEEK BESTERIK HITZARTU EZEAN, ETA EZ DU INOLAKO BERMERIK EMATEN LANARI EDO PRESTAZIOARI BURUZ EDOTA BERTAN EGON DAITEZKEEN AKATSEZ, ATZEMANAK IZAN EDO EZ. JURISDIKZIO BATZUETAN EZIN DIRA BERME HORIEK SALBUETSI, ETA AGIAN SALBUESPEN HORI EZ DA ZURETZAT APLIKAGARRI IZANGO.

6. Erantzukizuna mugatzea. LEGE APLIKAGARRIAK BERARIAZ ETA AGINDUZ HALA XEDATZEN EZ BADU, BAIMENDUNA EZ DA ZUREKIKO ERANTZULE IZANGO SORTUTAKO KALTEENGATIK, IZAN OROKORRAK, IZAN BEREZIAK (BARNE DIRA SORTUTAKO KALTEAK ETA ESKURATU GABEKO IRABAZIAK), HALABEHARREZKOAK ZEIN USTEKABEKOAK, ZUZENEKOAK NAHIZ ZEHARKAKOAK, BAIMEN HONI EDO LANAREN EDO PRESTAZIOAREN ERABILERARI LOTURIK SORTUTAKOAK, ARE BAIMENDUNARI KALTE HORIEN AUKERAREN BERRI EMAN BAZAIO ERE.

7. Baimenaren amaiera

a. Baimen hau eta beraren ondorioz lagatako eskubideak beste gabe amaituko dira baimenaren baldintza guztiak betetzen ez badira. Baimen honen mende zuregandik lan eratorriak edo bildumak jaso dituzten pertsonen edo erakundeen baimenak, ordea, ez dira amaituko pertsona edo erakunde horiek baimen honen baldintza guztiak betetzen jarraitzen badute. Baimen honetako 1, 2, 5, 6, 7 eta 8. atalek indarrean jarraituko dute, baimen honen indarraldia amaitu arren.

b. Aurreko baldintza eta betebeharren arabera, baimen honen eskubide-lagapena jabetza intelektualaren eskubideen indarraldi osorako da, legeen arabera. Aurrekoa hala izanik ere, baimendunak beretzat gordetzen du lana edo prestazioa beste baldintza batzuetan hedatu edo argitaratzeko eskubidea, eta noiznahi aldaratzekoa. Nolanahi ere, horrek ez du baimen hau amaitutzat emango (ez eta baimen honen baldintzapean emandako edo eman beharreko beste baimenik ere), indarrean jarraituko baitu ondorio guztietarako, aurrez xedatutakoaren arabera amaitzen den arte, jabetza intelektualaren legeak aitortzen duen damuaren eskubide morala baztertu gabe.

8. Orotarikoa

a. Zuk lana edo prestazioa –edota hura erantsita duen bilduma bat–, ustiatzen duzun bakoitzean, jatorrizko baimendunak hirugarren eta hurrengo baimen-hartzaileei eskaintzen die lanaren edo prestazioaren gaineko eskubide-lagapena, zuri emandako baimenaren betebehar eta baldintza berberetan.

b. Zuk lan eratorria nolabait ustiatzen duzun bakoitzean, jatorrizko baimendunak hirugarren eta hurrengo baimen-hartzaileei eskaintzen die jatorrizko lanaren edo prestazioaren gaineko eskubide-lagapena, zuri emandako baimenaren betebehar eta baldintza berberetan.

c. Baimen honetan jasotako xedapenen bat baliogabea edo aplikaezina baldin bada legearen arabera, horrek ez dio eragingo baimen honetako gainerako baldintzen balioari edo aplikagarritasunari, eta hitzarmen honen aldeek beste ezer egin behar izanik gabe, xedapen hori ezinbestekoa den neurrian birmoldatutzat joko da baliozkoa eta betebeharrekoa izan dadin.

d. Ez da onartuko baimen honen xedapen edo baldintzaren bati uko egiterik, edo hura urratzeko onespenik, uko egite hori edo urratze-onespen hori ez badago idatziz emana, eta uko egiten duen edo onesten duen aldeak izenpetua.

e. Baimen hau aldeen orobateko hitzarmena da, baimenaren xede den lanari edo prestazioari dagokionez. Ez dago lanaren edo prestazioaren gaineko interpretaziorik, adostasunik edo baldintzarik ezartzerik, ez badaude baimen honetan berariaz zehaztuta. Baimenduna ez da egongo zuk berari bidalitako jakinarazpenetan ager daitezkeen xedapen osagarrien mende. Baimen hau ezin da aldatu ez bada baimendunak eta zuk idatziz adostuta.

Creative Commons-en oharra


Creative Commons ez da baimen honen partaide eta ez du inolako bermerik eskaintzen lanari edo prestazioari buruz. Creative Commons ez da zurekiko nahiz besteekiko erantzule izango sortutako kalteengatik, barne direlarik, baina ez bakarrik, kalte orokor zein bereziak (barne dira sortutako kalteak eta eskuratu gabeko irabaziak), halabeharrezkoak zein ustekabekoak, baimen honi loturik sortutakoak. Aurreko bi (2) perpausetan adierazitakoa hala izanik ere, Creative Commons berariazko baimendun gisa identifikatu bada, baimendunaren eskubide eta betebehar guztiak izango ditu.

Lana edo prestazioa Creative Commons-en baimen publikoaren mende baimenduta dagoela jendeari adierazteko xede mugatuaz gain, inork ez du erabiliko Creative Commons marka erregistraturik, edo Creative Commons-ekin lotutako beste marka erregistratu edo ezaugarririk, hark idatziz onespenik eman gabe. Baimendutako erabilera guztiak Creative Commons marka erregistratua erabiltzeko une bakoitzean indarrean diren jarraibideen arabera egingo dira, haren webgunean argitaratu edo aurrez eskaturik ematen diren neurrian. Zalantzarik ez izateko, marka erabiltzeko murrizketa horiek ez dira baimenaren zati.

Creative Commons-ekin harremanetan jar zaitezke hemen: http://creativecommons.org/.

EHME

ARGITALPEN-PROIEKTUA



EUSKAL HERRIKO
MUSIKA ESKOLEN
ELKARTEA

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Musika eta Dantza Eskola
Escuela de Música y Danza